



Altsasu fokupean, berriro

España Ciudadana plataformak ekitaldia egingen du igandean eta bisita salatzeko herritik beste deialdiak egin dira / 9-11



MilaKolore egunak helburuak bete eta antolakuntzaren "espektatibak gainditu" ditu / 6

Leire Garcia Mallenco, Bostondik zientzia sariarekin bueltatu den gazte irurtzundarra / 2-4

Zamartzeko eta Aralarko santutegiko arkeologia-indusketen emaitzen berri 2 urte barru / 12-13

Ezkurdiak Lau T'erdiko finalerdikoa jokatu du igandean Urrutikoetxearen kontra, Bilbon / 14

Bihar Nafar Kirol Jolasen Igeriketa Txapelketako jarduna hartuko du Zelandi kiroldegiak / 15

Altsasuko auziaren kontakizun "kontzeptuala" egin du Joseba Salegi zinemagileak / 23

Folk ametsetan musika zikloa izanen da azaroaren 3an eta 4an Irurtzungo kultur etxean / 22



Sakanako Herri Lasterketa Burundesa Sari Nagusia jokatu da bihar, larunbatean, Olaztin / 16-17

Bostondik sariarekin buelta

Zortzi ikertzaile gazteren proiektua saritu dute; tartean, Leire Garcia Mallenco irurtzundarra dago. Landare bat genetikoki eraldatu egingen dute gero hark proteina nahikoa sortzeko gaitasuna duela erakusteko. Espazio bidaietako elikagaia?

Maialen Huarte Arano IRURTZUN

Eta zuk, zer eramanen zenuke espaziora? Galdera horren erantzunarekin sortu da ideia. Zortzi gazte nafarrek proiektu bat egikaritu dute zientziarekin eta ikerketarekin harreman estua duena. Nicotiana benthamiana izeneko landare batek ekoizle lana egin dezakeela erakusten ari dira: "Horretarako, landare hori eraldatu egingen dugu genetikoki eta horrek eragingen du landarea gai izatea proteina sortzeko", azaldu du talde lan horretan ari den Leire Garcia Mallenco irurtzundarrak. Bakteria batzuk eraldatu behar izan dituzte lehenbizi Agrobacterium tumefaciens izenekoak. Plasmido bat txertatu diote bakteria horri nahi dituzten geneak modu horretan sartzen ahalko dituztelako gero landarearen barruan. Genetikoki aldatutako landareen diseinurako lehen urratsak jorratzen ari dira, horien proteinak modu errazean atera eta purifikatu ahal izatea bilatuz.

Planeta STEM (ingelesezko zientzia, teknologia, ingeniariaritz eta matematikak) izeneko egitasmoan parte hartzen ari dira, Iruñeko Planetarioaren eta Garapen Ekonomikorako Departamentuaren zein Hezkuntza Departamentuaren babesa duen egitasmoan. Helburua da gazteei zientziarekiko interesa sortzea, eta, zortzi gazte horiengan behintzat sortu du interesa. Taldekide gazteena da Leire 16 urtere-

kin. Proiektuaren berri garrantzaroan izan zuten eta kontent izan dira denbora honetan laborategiko lana egiten: "Zortzion artean ez genuen elkar ezagutzen baina bagenuen komunean zerbait: zientziarekiko interesa. Horrek batu gaitu eta orain proiektu berezi batean barneratuak gabilta", esan du. Hasieran beldur zen ez ote zitzaion proiektua handi geratuko baina berehala sumatu zuen jakintza maila antzekoa zutela partehartzaileek eta egingarria zela lana. Berehala lanean hasi ziren.

Etorkezinean espaziora denbora luzearako joaten direnendako egitasmoa da lantzen ari direna. "Egun, espazioan ez dira denbora luzez egoten eta erraz antzera eramaten dituzte gizakiok bizirauteko behar izaten dituzten elikagaiak eta ura. Baina, nola egin genezake denbora gehiagorik han egon ahal izateko?", galdera planteatu zuten hasteko. Eta ikerketa lanean hasi ziren zortziak, irakasle gidari-laguntzaile bat alboan zutela, Sarah Garcia Hugalde. Berehala pentsatu zuten nolabait espazioan egonda zerbaitek sortu beharko liekeela bizirauteko beharrezkoak zituzten elikagaiak. Eta, hara non, landare bat ekoizle bilakatzea pasa zitzaion burutik. Ideia berez, ez da batere erraza, baina planteamendutik tiraka lortu zuten erakustea posible zela: "laborategira iritsi aurretiko lana nekeza izan da, baina

behin laborategian sartu ginela argiago ikusi genuen dena", azaldu du Leirek. "Landare erduarekin aritzearekin batera ikusi genuen argiago prozesu guztia: BioBrick-en bitartez egin ditugu froga guztiak (DNA sekuentziak dira) eta horien bidez atxiki genion landareari behar zuena, kasu honetan plasmidoa, bertan gero ekoiztuko duen proteina sartu eta ondoren, gai izanen da ekoizle bakan izateko", azaldu du. Proteina da erabili dutena prozesu honetan, helburu dutelako espazioan gizakiek denbora luzean bizirautea Lurrietik elikagai gehiegi eraman gabe, baina, bestelakoak ere txerta dakizkioke landareari: "proteinaren ordez bestelako sustantziak txertatuz gero ere ekoizle izan zitekeen modu berean landarea", argitu du.

Oraingoz landarea laborategiko lau paretan artean dute, babestuta. "Ezin da dagoen tokitik atera oraingoz", ohartarazi du. Kontua da, landare hori genetikoki eraldatua izan dela eta oraindik aztertu gabe dago ia kaltegarria izan zitekeen ingurumenarekiko. Horregatik, ez dute aukerarik izan handik ateratzeko. Dena dela, aurkikuntza edo ikerketa lan garrantzitsua izan daiteke. Izan ere, landare bat ekoizle izaten ahal bada edozein sustantzia sartuta, espaziorako garatu duten proiektu hau baliagarria zatekeen herrialde txiroetara halako



Leire Garcia Mallenco irurtzundarra, NavarraBG taldeko kidea. MAIALEN HUARTE ARANO



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

landareak eramateko: "baliagarrria izanen litzateke botikak edo elikagaiak sortzeko adibidez", azaldu du Leirek.

Bartzelonan lehenbizi, Bostonen orain

Landare ekoizlearen proiektua munduan barrena ari dira eramatzen. Lehenbizi Bartzelonan aurkeztu zuten eta oso harrera onarekin gainera. Bertan ziren ikerlari eta zientzialariak aho bete hortz utzi zituzten egitasmoarekin. "Ez da ohikoa izaten ikasle hain gazteek horren kopirilatsua bilakatu daitekeen proiektua aurkeztea", zioten gehienek Leirek berak azaldu duenez. "Jendaurreko aurkezpenak ez dira xamurrak izaten, ez behintzat niretako. Oso urduri jarri nintzen, baina uste baino hobe aurkeztu genuela esan nuke", esan du. John Collins Bostoneko Medikuntza eta Teknologia Zentroko zuzendariari aurkeztu zioten lana ere, eta txundituta geratu zela nabarmendu du Leirek. "Bostoneira irabaztera goaz", esan zuen Leirek Bartzelonako arrakastaren ondoren.

Eta esana egi bilakatu da. Igandean jakin zuten euren kategoriako lehen saria eskuratu zutela Landare Sintetikoen High School modalitatean. "Oso ongi joan da guztia. Urduri jarri ziren taldekideak aurkezpenen baina dena oso lotua eraman genuen eta azalpenetan ez zuten hutsik egin", adierazi du pozik Leirek. "Maider, Daniel eta Nahia izan ziren oholtza gainera gure egitasmoa defendatzera irten zirenak eta bikain azaldu zuten prozesu guztia". Bukaeran, epai mahaiaren galderei erantzun ahal izateko gainontzeko taldekideak ere taula gainera igo

ziren babes eman eta laguntzera.

Gaztelaniaz aritu ziren euren proiektua aurkezten Bartzelonan, baina, hurrengo geldialdia are zailagoa izan zuten: Amerikako Estatu Batuetan izan dira, Bostonen, Massachusettseko Institutu Teknologikoan. Eta hizkuntzaren aldetik aldea izanen da, ingelesez egin dutelako euren landare ekoizlearen defentsa: "gure taldean ingelesez hobeki mintzaten direnak izan dira lana defendatzen". Esperientzia zuzatu dutela azpimarratu du: "talde ugari izan gara lehian eta modalitate zein maila desberdinetan. Guri 72. postua egokitu zitzaigun eta ostiralean jakin genuen zein izanen zen gurea aurkeztuko genuen egun eta ordua. Tartearen izan dugu entseguak egiteko baita beste talde batzuen aurkezpena entzuteko ere", azaldu du.

Talde guztien azalpenen ondoren eman zuten emaitzen berri. "Hiru modalitateetan izan gara izendatuak: posterrik onenari sarian bigarren gelditu gara; neurketarik onenaren sarian laugarren eta lehen postua lortu dugu Landare Sintetikoen sariketan".

Asteartean abiatu ziren Amerikako Estatu Batuetara eta astelehenera arte egon ziren. "Ez da bakarrik aurkezpen bat izan, bestelako lan batzuk ere sortu behar izan ditugu Bostoneko ekitaldirako: sareari lotutako azalpenak edota poster erraldoi bat ere prestatu dugu", gaineratu du. "Irabazteak emanen digu aurrera egiteko aukera", adierazi du. Izan ere, halako lehiaketa bat irabazteak finantziarioa izatea ahalbidetuko die eta, hortaz, ikerketa lanarekin aurrera

egiteko bide bat zabalduko zaie. Dena dela etorkizunera begira oraindik ez dute deus lotuta. Lehenengo ideien artean proiektuarekin segitzea dago, baina, taldekide batzuk utzi egin beharko lukete taldea unibertitate mailara pasako direlako eta beste taldekide batzuk bilatzen hasi beharko dira. Esperimentatzen segitzeko aukera emanez gero prest leudeke proiektua garatzen segitzeko. Nazioarteko lehiaketa izan da eta mundu osoko 370 talde aritu dira euren proiektuak aurkezten.

Idea eta aukera berriak ezagutzen

Norberaren proiektua sortu, garatu eta aurkezteaz gainera beste herrialdeetan egiten diren aurkezpenetan talde askoren proiektuak ezagutzeko aukera ere izaten dute gazte ikerlari horiek. Bartzelonan kasu, ideia ugari ezagutu zituzten. "Taldekide batek eskumuturreko moduko bat erakutsi zigun. Ideia zen, esaterako, bidaiatzen ari garela, toki ezezagun batera iristean eta gaixotasun epidemia bat balego, eskumuturrekoak gu gaztigatzea", gogoan izan du Leirek. Gaixotasunekin segituz, bazen beste talde bat ikerketa lanetan ari zena minbiziari aurre egiteko birus baten bila zebiltzana.

Bostonen ere ideia interesgarriak ezagutu dituzte: "Beste bi taldek gure antzerako ideia izan zuten. Euren pentsatu zuten moduren bat egon beharko litzatekeela espaziora proteina bidaltzeko. Guk ez bezala euren ez zuten landarerik tartean izan eta euren ideia gurea baino konplexuagoa litzateke garatzeko".



NavarraBG taldea iGEM lehiaketan, Bostonen. PLANETARIOA

Ezagutu, jardun, hautatu: STEM planeta

Ikasleek zientzia, teknologia, ingeniariaritz eta matematika ezagutarazi eta bokazioak sortu nahi dira

Maialen Huarte Arano IRURTZUN

Iruñeko Planetarioaren eta Nafarroako Gobernuako Ekonomia Garapenerako Departamentuaren eta Hezkuntzako Departamentuaren proiektu horren helburua STEM (ingeleseko sigletatik zientzia, teknologia, ingeniariaritz eta matematika) zer den ezagutaraztea da, arlo horietan orokorrean ikasleen artean bokazioak sustatzeko eta, bereziki, emakumeen grina pizteko. Izan ere, diziplina horien matrikulazioetan beherakada atzeman da eta programa horrek bultzada izan nahi du. Jakina da, zientzia, teknologia, ingeniariaritz eta matematikaren aldeko apustua egiten duten lurraldeek garapen ekonomiko eta berrikuntzarako baldintza hobeak dituztela, horien alde egiten ez dutenekin alderatuta. STEM Planetak gazteei bereziki eta gizarteari orokorrean, ma-

teria horien baloreak erakusteko tresna izan nahi du.

STEM Planeta programa hiru zutabetan egituratzen da. Alde batetik, STEM Planeta zer den ezagutu. Bestetik, behin STEM Planeta ezagututa, errealitatearekin duten harremana duten ekintzetan jardun ahal izateko. Azkenik, ondoren goi mailako ikasketa horien artean hautua egiteko. Hori guztia kontuan hartuta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako neskek eta mutilak dira euren etorkizuna erabakitze data hurbil dutenak, baina beste talde batzuk ere jomugan daude: etorkizuneko zientzialari edo teknikariak izanen diren haurrak, familiak, hezkuntza-komunitatea eta gizartea orokorrean. Diziplina horiek askotan gogor edo zailtzat hartzen dira eta horien irudi adeitsuak erakutsi nahi da egitasmo honen bidez.

"Oso interesgarria da ezagutzen ari garen guztia"

Bostongo egonaldia eta gero berriro Iruñeko institutura bueltatu da. Etorkizunaz eta proiektuaz aritu zaigu

MHA IRURTZUN

Hamasei urte besterik ez ditu Leire Garcia Mallenco irurtzundarrak baina gauza batzuk argi ditu: "zientzia interesgarria iruditzen zait txikitatik", esan du zalantzarik gabe. Eskolan

beti gustatu izan zaizkio ikasgai horiek gehien, zientziarekin eta biologiarekin zerikusia dutenak batez ere. Aitortu du dena dela proiektu honetan parte hartzeko aukera eman ziotenetik argiago duela etorkizunean nondik

joko duen: "Orain arte albaitaritz ikasiko nuela esaten nuen beti. Askok gustatzen zaizkit animaliak eta bide hori hartzea erabakia nuen. Dena dela, orain gehiago erakartzen dit biokimikak. Baina marrazketa edo arkitektura ere ez ditut baztertzen guztiz, baita fisioterapia egiteko aukera ere".

Oso kontent dago Biogalaxy egitasmoarekin: "Elkar ezagutzen ez nituen beste zazpi ikaslerekin abiatu dut abentura hau eta oso interesgarria da ikasten ari ga-



Leire laborategian. IBAN AGINAGA

ren guztia". Ez da batere erraza izan. Ordu ugari sartu dituzte garagartzarotik, iGEM leihaketa martxan jarri zenetik: "Hasierean eskolatik atera eta arratsaldetan izaten ginen. Ikasturtea amaitu zenean larunbatetan egiten genuen hitzordua", kontatu du. Garciak azaldu digunez, zortzi ikasleek prestakuntza prozesua izan zuten lehenbizi eta gero ikerketa lanera pasa ziren laborategira. Agrobioteknologia Institutuan izan dira lanak egiten.



Leire eta bere taldekideak iGEM lehiaketan irabazitako sariarekin. PLANETARIOA

Biogalaxy egitasmoko zortzikote ikerlari gazte nafarra

Biogalaxy blogean euren lana kontatu dute. Formazioa "neketsua" egin zitzaizen, gero "interesgarri" bihurtu da

Maialen HA IRURTZUN

Biogalaxy izeneko taldea da sortu dutena iGEM lehiaketan (Internacional Genetically Engineered Machine) parte hartzeko. Nazioarteko Biologia Sintetikoko lehiaketa da honakoa, urtean behin egiten dena. Unibertsitateko ikertzaile taldeek parte hartzen dute batez ere, baina, bada azpiatal bat zeinetan unibertsitate aurreko ikasleek ere parte hartzen duten.

iGEM lehiaketako aipatutako azken sail horretan parte hartzen du Biogalaxy talde nafarrak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zortzi ikasle dira taldea osatzen dutenak, honakoak dira: Maider Manterola Telleria (Iruñeko Sagrado Corazon ikastetxea), Leire Garcia Mallenco (Julio Caro Baroja BHI), Imanol Remon Lasheras (Padre Moret-Irubide BHI), Daniel Saenz Fernandez (Plaza de la Cruz BHI), Nahia

Eza Arruti (Calasanz Ikastetxea), Aitor Rubio Aguerri (Navarro Villoslada BHI), Hodei Otegi Gonzalez (Amazabal BHI) eta Leire Zaragueta Abrisketa (Liceo Monjardín). Taldeak tutore bat du. Egiteko hori Sarah Garcia Uhalderen esku dago. Bera CSIC-IdABen nekazaritza jardueren teknikoia da.

Biogalaxy taldeak bere egitasmoa hasi zutenetik pausoz pauso joan dira euren lana kontatzen, Interneten. Biogalaxyren Bloga sortu dute, elblogdebiogalaxy.blogspot.com. Sareko atari horretan ikerlari zortzikote gazteak astetik atera zein aurrera pauso egiten zituzten xeheki azaldu dute. Lanik neketsuena agian prestakuntza prozesuarena izan zela onartu dute eta interesgarriagoa izan zaie ondorengo guztia. Honako hau idazterakoan oraindik Bostongo egonaldia berri sartzekoak ziren.

Munduko arazoei aurre egiteko lehiaketa

Biologia sintetikoko proiektuen bidez eguneroko erronkei erantzuna eman nahi zaie

MHA IRURTZUN

International Engineered Genetically Machine Foundation, iGEM Fundazioa, irabazi asmorik gabeko erakundea da. Hezkuntza, eskuduntza eta biologia sintetikoaren arloan lan egiten du, lankidetzako komunitate irekia garatzeko. iGEM 2003ko ilbeltzean hasi zen Massachusettseko Teknologia Institutuan (MIT) bereizitako ikerketa ikastaro gisara, eta hartan, ikasleek zelulak keinuka aritzeko dispositibo biologikoak garatu zituzten. Ikastaroa 2004an lehiaketa bihurtu zen eta 5 ikasle-taldek parte hartu zuten. Ordutik parte-hartzaile kopuruak gora egin du: 2005ean 13 talde eta 2016an 42 herrialdeetako 300 talde, 5.000 ikasle baino gehiago.

Fundazioaren programa nagusia iGEM lehiaketa da. Haren bidez ikasleei biologia sintetikoaren mugak gainditzeko aukera ematen zaie munduak dituen eguneroko erronkei aurre egiten dieten bitartean. Diziplina anitzeko taldekideek elkarrekin lan egiten dute bururatu zaien ideia propioa diseinatu, eraiki, probatu eta neurtuz. Lanean, pieza biologiko trukagarriak eta biologia molekularren teknika estandarrak erabiltzen dituzte.

ASTEKOA



AINGERU MIKEO

Pikutara!

Albert Riveraren España Ciudadana plataformak igandean, azaroaren 4an, ekitaldi bat egingen du Altsasun, eta Abascal Vox-eko presidentea eta Savater filosofoa ere gehitu dira. Altsasu sinbolo bihurtu omen da, eta badatoz hainbat aldarrikapen egitera, haien hitzetan Guardia Zibilar babesa ematera, IV. xedapen iragankorra kentzera, eta Altsasuren espainiartasuna aldarrikatzera.

Bai. Altsasu herriaren izenak indarra hartu du, Estatuan eta mundu zabalean, hain zuzen ere, Estatuaren gehiegikeriaren aurrean, herri osoa bateratuta, herriko seme-alaben defentsan egindako garrasi ozenagatik; izan ere, bi urte baino gehiago kartzelan daramatzate zortzi gaztek taberna-liskar bat izateagatik.

Baina, hauteskunde sasoi zabalduta dagoenean, Altsasura datoz politikari-filosofo su-eragileak, ez Altsasun legokeen aferarik konpontzera, baizik eta justizia ezaren aurrean altxatu den Altsasu umiliatuz, "euskaletza" xaxatzera, Domuit Vascones (Euskaldunak garaituta) aldarrikatzera.

Sarraskijaleen antzera, gatazkaren hondarkietatik azken muinak hurrupatzera. Horrela, Altsasu "errebeldan" espainiartasunaren pika sinbolikoa ezarri, Estatuok beste

lurraldeetan botoak irabaziko dituztelako ustea elikatzen.

BAI, ALTSASU HERRIAREN IZENAK INDARRA HARTU DU, ESTATUAN ETA MUNDU ZABALEAN

Aurretik ere, Canovas del Castillok, espainiar politikari ahaltsuak eta Foruen abolizionistak berak, esana zuen "euskaldunen libertateak gozaten dituztenen onerako dira eta ez diote inori kalterik

egiten; eragiten duten inbidia handia ez baldin bada kalte bezala hartzen". Lehenxeago, esanak zituen Victor Hugo frantziar politikari eta idazle handiak "euskaldunak ez dira ez frantsesak eta ez espainiarrak; espainiarrek Foruak kendu nahi dizkiete inbidiagatik, baina Foru horiek haien lurralde guztietara hedatuz gero, ez lukete jakinen zer egin haiekin".

Rivera, Abascal, Savater... ez datoz elkarrizketan eta demokrazian sakontzera, baizik eta hedabideetarako titularrak sortzera, Altsasuko saminaren kontura. Horregatik, probokazioan erori gabe, pikutara!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:

Maialen Huarte Arano
Zuzentzailea:
Miren Alonso Razkin

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Garboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

Amets bat, izan dugu...



 107.3 FM
beleixe
www.guaxe.es



Goizeko giro goxoa Lakuntzan.



Arratsaldeko MilaKoloreren batukada.

MilaKolore egunak "espektatibak pasa ditu"

Elkarteak helburu guztiak bete ditu eta Lakuntzako larunbateko ospakizunean "zuek gu bezain ondo pasatu izana" espero dute. MilaKolorek aurki egokitutako furgoneta izanen du, hura mantentzeko eta hainbat ekimen egiteko dirua ere

LAKUNTZA

MilaKolore elkartearen baitan behar bereziak dituzten pertsonak eta haien senideak elkartzen dira. Elkarrekin bere estreminako eguna Lakuntzan ospatu zuen. Virginia Ruiz de Eginok presidentea esan digunez, "hasieratik helburuak argi genituen: gure elkartearen ezagutaraztea, EZgaitasun funtzionala duten pertsonak gizartearen daudela eta GAI direla ikus-araztea eta gure elkartearen lana erraztuko lukeen furgoneta bat erostea".

Elkarteko koordinatzaile Amaia Urrizak esan digunez, "gure elkartearen hunkigarria izan zen hainbeste jende elkarrekin ikustea gure elkartearen

alde egiten". Egunerako jarritako helburuak bete zituztela esan eta esker oneko hitzak besterik ez dituzte hura posible egin zuten guztiendako. Izan ere, egiteko askotan jende askoren babesa jaso zutelako: "tonbolan txartel bat erosiz, txosnan pote bat hartuz, bazkaltzera etorritik, tallerretan parte hartuz, eskumuturreko edota zapi erosiz, arratsaldeko ikuskizun eta kontzertuetara gerturatuz ala lanean ibili zineten guztiak, mila esker bihotzez".

Urrizak gaineratu digunez, larunbatekoak balio izan zuen "gure elkartearen gazteak eta helduak gauza asko egiteko GAI direla ikusi genuen". Euren

gaitasunak azaldu zituztenak Izaskun, David, Isaac, Iosu, Nora, Ana, Mikel, Aratz, Oier, Manuela, Lizar, Iker, Edurne, Maitane, Rosa, Naira, Alex, Aimar, Yuseff eta Aitor izan ziren. "Haien artean desberdinak izanda talde bikaina osatzen dutela erakutsi ziguten, mila kolore dituen talde bat! Izena eta aurpegia jarri genien hainbat gaitasuni". Eta gaineratu duenez, "eguna ezin hobe joan zen eta bikain pasa genuen".

Furgoneta ere

Ruiz de Eginok esan digunez, desio zuten egokitutako furgoneta lortu dute. "Eskerrik asko hau lortzen lagundu zenuten

pertsona eta enpresa guztiak eta bereziki Sakana Group kooperatibari. Hark emandako dirulaguntzarekin furgonetaren kostua pagatuko dugu. Gainera, diruarekin, furgonetaren mantentze lanak eta MilaKolore elkartearen aurrera eramaten ditugun ekintzak finantzatzeko ditugu". Guztira 70.000 euro inguru jaso zituzten.

MilaKolore elkartearen kideendako eguna "luzea" izan zen, baina "pozez beteta eta esker-tuta bukatu genuen". Esker oneko hitzak borborka ateratzen zaizkie elkartekideei, dela Lakuntzako herriari izandako jarraitasunarekin, dela Lakuntzako Udalarari hainbeste laguntzeagatik. Eta MilaKolorekoek esker bereziak eman dizkiete Martini, Nataliari, Aitorri, Patxiri, Ricardori, Fernandori, Garini, Joneri eta Ketxusi. "Zuen guztiak laguntzarik gabe amets hau ez zen egi bihurtuko", ziurtatu dute elkartetik. Presidenteak esan digunez, "larunbatean bizitakoak ilusio eta indar handia eman digu lanean jarraitzeko eta aurrera segitzeko. Gaur bizitza kolore gehiagorekin ikusten dugu".

Euskaraldian parte-hartzera animatu du udalak

Altsasuarrak euskararen erabilera handitzeko ariketan izen ematera gonbidatu ditu


ALTSASU

Euskaraz dakitenak euskaraz hizketan jarri nahi ditu Euskaraldiak. Baina horrekin batera, eta hori bezain garrantzitsua da, euskara ulertzen dutenak ere aktibatu nahi ditu. Haien aldeko jarrerarekin elkarrizketak parez-pare egingen direlako, batek euskaraz eta besteak nahi duen hizkuntzan, elkarrizketa elebidunak sortuz.

Euskaraldiaren asmoa hori da eta Altsasuko Udalak atxikimendua azaldu zion herenegungo bilkuran. Altsasuarrei ekimenean parte hartzeko deialdia egitearekin batera erabaki zuen www.altsasu.eus web orriaren Euskaraldiaren berri ematea, udaletxeko balkoi batean Aho-bizi eta Belarriprest izanen diren pertsonak identifikatzeko balioa duten ikonoak jartzea (ahoa eta belarria), udaleko langileei Euskaraldiaren berri ematea, kultur gunean film bat eman aurretik Euskaraldiaren iragarria jar dezala. Gainera, Euskara Batzordean bestelako neurriak hartzea aztertuko dute aurki. Altsasuko Euskaraldia taldeak aurkeztutako proposamenaren alde Geroa Baik, EH Bilduk, PSNk eta Goazen Altsasuk egin zuten. UPN abstenitu egin zen.

Esataria: Alfredo Gaurko gaiak:

- Altsasuko herri batzarrak azaroaren 4ko ekitaldien aurkezpena
- Azaroaren 4ko bisitaren aurrean Javier Ollo Martinezen elkarrizketa



Ostiralero 9:30ean
SAIOA Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

beleixe
107.3 FM
guaixe.eus-en ON LINE



Foruzaingoa bide ematen. ARTXIBOA

Udalaren eta Foruzaingoaren arteko hitzarmena luzatu da

Udaltzain nahiko ez daudenez, haien zeregina betetzeko akordioa garagarria akabera arte luzatuko da

ALTSASU

Foruzaingoak urte bat eginen du Altsasuko udaltzainen lana egiten. Udalak eta Nafarroako Gobernuak garilaran leian indarrean sartu zen elkarlan-hitzarmena sinatu zuten. Haren arabera, Foruzaingoak Altsasu patruilatu du, "kalitatezko segurtasun zerbitzu publikoa eman eta Altsasun segurtasun publikoa bermatzeko". Nafarroako Gobernuak gaurko bileran erabaki du akordioa garagarriaren 30era arte luzatzea. Horregatik, 72.800 euro pagatuko ditu udalak.

Altsasuko Udalak nahiko udaltzain ez ditu eta Javier Olo Martinez alkateak hitzarmena behin-behineko neurria zela nabarmendu zuen. Olo azaldu digunez, azken kaboa jubilatutako ondoren, gaur egun Udaltzaingoa bi laguntzaileek osatzen dute. "Bi lanpostu betetzeko aurtengo deialdiak ongi joan dira. Nafarroako

Segurtasun Eskolara joanen diren 2 pertsona ditugu. Han hilabete batzuk eginen dituzte eta, ondoren, hona lanera etorriko dira". Biek 2014an eta 2017an jubilatutako 2 udaltzainen postuak beteko dituzte. Olo gaineratu duenez, "orain, segur aski, 2 lanpostu betetzeko deialdi eginen dugu. Espero dugu hurrengo urteko azken hilabeteetan 3-4 agente berri izatea".

Alkateak aurreratu digunez, aurki Nafarroako Aldizkari Ofizialean 2014ko udaltzainen deialdi batera aurkeztutako behin-behineko pertsonen zerrenda argitaratuko du gobernuak. "Esan digutenez apirilera edo maiatzerako prozesua bukatuta egotea espero dute". Deialdi horren bidez Altsasuko Udalak hiru udaltzain postu bete nahi izan zituen. Zazpi agenterekin aste guztian goiz eta arratsalde zerbitzua emanen luke udalak.

Gogotsu hasi dira gazteak

Sakanako gazte asanbladen jardunaldiak atzo hasi ziren. Arbizuko Argi Bidea elkarte txiki gelditu zen. Gazteria langile klasean hitzaldia izan zen. Gazteriaren subjektibitateaz eta gazte izateak zertan eragiten dien hausnartu zuten. Iturmendin dute hurrengo hitzordua, hilaren 17an. Langile klasearen definizioaz hausnartuko dute gazteek.



@ALTSASUKOGA

Azaroarekin batera iritsi da Azarokotea kanpaina

25 urdaiazpiko zozketatuko ditu Sakanako Dendarien, Ostalarien eta Zerbitzuen elkarteak

SAKANA

Sakanako Dendarien, Ostalarien eta Zerbitzuen elkarteko establezimenduetan erosteak saria izan dezake. Azaroan zehar elkarteko kide diren saltokietan erosketa egiten duten herritarrek 25 urdaiazpikoen zozketan sartuko dira. Zozketan parte hartzeko Sakanako Dendarien, Ostalarien eta Zerbitzuen elkarteko establezimendu batean erosketa egin ondoren jasoko duten txartela izen abizenekin eta harremanetarako telefonoarekin bete behar da. Azarokotearen laugarren edizioa da eta "betiko bezeroak saritzea" du helburu.

Establezimenduak

Lakuntza: Tania arrandegia, Juncal auto-zerbitzua eta Isidoro Arregui harategia. Etxarri Aranatz: Kaxeta liburu-denda, Sabando, Argiro Optika, Hostogorri altzariak, Etxarri altzariak, Lizardi estetika zentroa, Etxarri hortz-klinika, Iñaki ileapaindegia, Leku Ona, Derry Aske. Altsasu: Arkatz liburu-denda, Asensio Moda, Boutique Ekin, Aldasoro harategia, Santa Cruz sukaldeak, Izara gortinak, Lezea kirolak, Ramos elektrizitatea, Ramos etxetresna elektrikoak, Cristina fruta-denda, Iker Kirolak, Joselen Moda, Larka Emakumea Gizona, Lasa Kirolak, Mari Carmen, Marigorri, ML Moda gizonezkoa, ML Moda emakumezkoa, Santa Cruz altzariak, Sakana optika, Joyeria Norte, Sare oinetakoak, Tu tienda especial, Txartel, Txikitxo, Xagu informatika, Gertu Sakana, Allianz Hnos Sayas aseguruak, Akeita kafetegia, Sorkunde harategia, Luresu, Deportes Intxostia, Bengoetxea oinetako-denda, Xume, Lezea, Koxka, Gautxori eta Pinpilinpausa Moda Infantil. Olazti: Olatz Etxagibel farmazia eta Pako harategia.



Joan direnak gogoan izateko

Sakanako hilerriek bizia hartu zuten atzo, urtero bezala, Domu Sainduen egunarekin. Mundu osoan ospatzen den eguna da, baina toki bakoitzean tradizio ezberdinak egiten dira. Gurean hilerrietara joatea da tradizioa, hortaz, hilerriak erromesaldi lekuak bihurtu ziren. Betirako joan direnak urtean zehar gogoan izaten diren arren, atzo indarra hartzen duen eguna da.

1936koa memorian

Victor Martirena Alegria Iberoko Zurbao dermioan 1936ko lastailaren 28an fusilatu zuten. Uharteko Arakilgo hilerrian 2017an lur eman zioten eta igandean, berri, plaka oroigarria jarri zuten. Lore eskaintza egin zuten bai hilerrian baita herrian ere, estatu kolpearen ondorengo errepresioa salatzen jarraituko eskulturaren.



3zpat!
IRURTZUNEN!

SAKANA

5€
8€

AZAROAK 10 17:30tan
17:00tan TXOKOLATADA ESKOLAKO PATIOAN

SARRERAK SALDAI
Pikuxar/Martirena (IRURTZUN), Galati (BUIXER) eta Maimur (LEZEA)

Pikuxar

Noticias
LABORAL



Txahala eta umea elkarri begira Ferialeku kalean.

Negu-giroa ferietan bisitari, beste askorekin batera

Hotz egin arren jendea poleki egon zen Altsasuko ferietan eta postu artean aurrera-atzera ibili zen

ALTSASU

Nafarroa Oinezeko ospakizuna despeditu ondoren izan dira aurten Altsasuko feriak. Eta bat-bateko negu-giroa mustu da asteburuan. Hotz handiarekin ospatu ziren feriak eta hori kalean ere nabaritu zen. Jende gutxiago ibili zen, tabernen aterpea bilatu zutelako larunbatean. Beti Iaten elkarteak bere eguna ospatu eta 170 pertsona elkartu ziren bazkaltzera. Peñetako kideek hotzari aurre egin eta festa giroa zabaltzen saiatu ziren kalejirarekin.

Feria egunean, domekan, jatekoak, arropak, etxe-tresnak eta bestelakoak erosteko salmenta postu asko jarri ziren, kultur guneko zabalgunean, Baratzebidetako plazan, Gartzia Ximenez kalean, Foru plazan eta Otadiko Kristo deuna plazan. Udalak ferietan jartzeko salmahai batzuk erosi ditu eta atzo mus-

tu ziren. Bestetik, Garbitoki eraikinean Altsasuko mikologia elkartearen erakusketa bisitatzeke aukera izan zen. 180 ziza motaren ondoan haiek biltzean basoan jasotako zaborra ere ikusgai izan zen. Azken horrekin natura zaindu eta basoa garbi mantentzearen aldeko deia egin zuen elkarteak. Arte Bideren azoka Iortia kultur gunean bisitatzeke aukera izan zen ere.

Azienda

Ferialeku kalean abelgorriak ikusteko aukera izan zen. Handik ez oso urrun arsaldoak, ahuntzak eta oiloak ikusgai izan zituzten bisitariek. Guillermo Perez de Lezeta eta Jose Angel Barberena izan ziren zaldi-azienda lehiaketako epaileak. Sakanako 19 abeltzainek aurkeztutako 66 animalien morfologia aztertu zuten Zelain kalean. Saritan 2.820 euro banatu zuten.

Sariak

5 urtetik gorako hazitarakoak

1. SAT Gonzalez, Ziordia.
2. Patxi Legarra, Zuhatzu.
3. J. Anjel Rekalde, Zuhatzu.

3 eta 5 urte bitarteko hazitarakoak

1. J. Anjel Rekalde, Zuhatzu.
2. Juan Aldaba, Satrustegi.
3. Erkuden Gabari, Olazti.

Behorrek pottoarekin

1. Juan Aldaba, Satrustegi.
2. J. Anjel Rekalde, Zuhatzu.
3. Erkuden Gabari, Olazti.

Pottorik gabeko behorrek

1. Patxi Agirre, Arbizu.
2. SAT Gonzalez, Ziordia.
3. Agustin Askarai, Lakuntza.

Urte beteko pottoak

1. Juan Aldaba, Satrustegi.
2. Mikel Aldasoro, Etxarri A.
3. J. Javier Arraiza, Uharte A.

Bi urteko pottoak

1. Martin Ezkurdia, Arbizu.
2. Patxi Legarra, Zuhatzu.
3. Fco Javier Ruiz de Erentxun, Arakil.

Urte beteko bihokak

1. SAT Gonzalez, Ziordia.
2. Fermin Unzilla, Etxarri A.
3. Javier Agirre, Etxarri A.

Bi urteko bihokak

1. SAT Gonzalez, Ziordia.
2. Javier Agirre, Etxarri A.
3. J. Anjel Rekalde, Zuhatzu.

Altsasuko abere onena

Asier Alustiza Albarena.

Urteroko patata bilketa igandean egingen da

Urdiain eta Satrustegi artean egingen da, 09:00etan hasita.

SAKANA

Iruñeko Alegria peñako kideak 56. patata bilketa edo patata operazioa egingen dute igandean. Jaki bila etorriko dira Sakanara gero haiek Iruñeko Hermitas de los Pobres edo Behartsuen Haurrideak kongregioari emateko. 15 bat peñako kide etorriko dira jakiak jasotzera. Egiteko horretarako Abaigar eraikuntza enpresako kamioia, mojen furgoneta eta bi auto erabiliko dituzte. Herrietara iritsi dela adierazteko klaxon eta karraka hotsak erabiliko dituzte.

Urdiainen hasiko dute bilketa, 09:00etan. Etxarri Aranatzen gosaltzeko geldialdia egin eta gero Arbizura jo eta handik Unanurako bidea hartuko dute. Hirugarren urtea izan da Ergoienako herrian bilketa egiten dena. Handik Satrustegira arteko herriz-herriko ibilbidea egingen dute. Peñakideek "helburua zein den jakinda, sakandarrak eskuzabalak izatea" espero dute. Eta haien lana errazteko, "posible balitz, patata guztiak toki jakin batean edo batzuetan uztea laguntza handia litzateke. Bestela, guk ikusten ditugun tokiren batean egon daitezela, etxe batzuetan konturatu ez eta jaso gabe gelditu izan garelako".

Errefuxiatuendako neguko arropa bilketa egingen da asteburuan

Negu giroa etortzearekin batera, Zaporeak gobernuz kanpoko erakundeak errefuxiatuendako neguko arropa biltzeko kanpaina martxan jarri du. Greziako Lesbos eta Chioseko errefuxiatu eremuetan dauden pertsonendako izanen da jasotakoa. Zaporeak erakundetik azaldu digutenez, honakoak dira jaso nahi dituztenak: jakak, jertse lodiak, berokiak, prakak, gonak, barruko arropa berria, neguko galtzerdiak, txanoak, bufandak, gerrikoak, bestelako osagarriak eta neguko oinetakoak. Hiriberriko Goiko kaleko Agirrezabal etxean jasoko dira guztiak, gaur hasi eta igandera arte, 10:00etatik 14:00etara.

IATko langileen eta zuzendaritzaren arteko bilera atzeratuta

Ibilgailuen Azterketa Teknikoko (IAT) lantegiko 11 langileek lan baldintza eta soldata hobeak aldarrikatzeko greba egin zuten lastailaren 16an. Zuzendaritza eta langileak egoera aztertzeke herenegun biltzekoak ziren, baina zuzendaritzak bilera astelehenera atzeratu du. ELAk jakinarazi zuenez, enpresa berak Gipuzkoako IAT-etan dituen baldintzak nahi dituzte: urtean 1.550 ordu lan egitea, astean 35. Horrekin batera honako eskaerak egin dituzte: langile berrien soldata gordina handitzea (926 euro dira gaur egun), lanaldi jarraitua ezartzea eta 3 mekaniko eta administrari gehiago kontratatzea.

Giro bikaina gazte egunean

Negu-giroak Irurtzun-Arakilgo gazte asanbladaren ostiraleko egitaraua Larrazpira lekualdatzea eragin zuen. Larunbatean, gazte egunean, karpan 140 gazte elkartu ziren bazkaltzera. Han egon ziren elektro-txarangarekin, kalejira txiki bat egiteko aukera eman zien eguraldiak. Musika jaialdiarekin gazte askok ia argitzera arte luzatu zuten gaua.



IAGA

Arakil ibarreko haurren eguna Izurdiagan

Arakilgo Udalaren Kultur Zerbitsuak udazkenerako prestatu duen agendaren barruan haurrei eskainitako eguna dago. Izurdiagako elkartearen igandean, 17:00etan, Igor Lanzek eta Miren Bajok haurrendako eskulan tailerra bideratuko dute. Ondoren, txokolate-jana izanen da. Eta despeditzeko Izaskun Mujika ipuin kontalaria ariko da.

Pentsio duinen aldeko aldarrikapenean neguko ordutegia

Nafarroako Pentsionistak Martxanek, Otsailak 22ko Plataformak eta Sasoiak deituta Altsasun astelehenero kontzentrazioak egin dira. Negu-giroa etortzearekin batera mobilizazioen deitzaileek bi erabaki hartu dituzte: kontzentrazioak hamabostean behin egitea eta 19:00etan egitea. Hurrengo hitzordua astelehenean da, Zumalakarregi plazan.

Altsasu aitzakia gisa hartuta, ekitaldia

España Ciudadana plataformak Altsasuko Foru plazan ekitaldia antolatu du etzi 11:30ean

ALTSASU

Plataforma hori Albert Riverak aurkeztu zuen Madrilen maiatzaren 20an. Ciudadanos alderdiko buruak herritar guztiak plataforman parte hartzea deitu zituen, "espainiar izateaz berriro harro egoteko" eta "gure herriak galdutako itzala berreskuratzeko". Riverak lastailaren 18an jakinarazi zuen España Ciudadanaren hurrengo ekitaldia Altsasun izanen zela. Esan zuenez, "Altsasu espazio sinbolikoa da. Han, inoiz baino gehiago, zerbitzari publikoen askatasuna eta haiekiko errespetua defendatu behar da". Hala, Altsasuko auziari erreferentzia egin zion.

Aldi berean, Espainiako Konstituziotik 4. xehedapen gehigarria kentzea aldarrikatu du, Nafarroa eta Euskadi bat egiteko aukera ematen duena. Plataformaren iritziz, xehedapen hori "Nafarroarendako arazoa da. Nafarroa bere orainari eta etorkizunari buruzko etengabeko ziurgabetasunean bizi da. Beste inolako erkidegok ez duen prozeduraren bidez Euskadira anexiona daiteke. Justifika ezin den subordinazio egoeran uzten du Nafarroa". Horixe jasotzen da plataformaren dekalogoan. 10 neurri "herritar libre eta berdin aldeko Espainia" lortu nahi duena. Deialdi horrekin Ciudadanosez aparte, PPK eta Voxek bat egin dute. Fernando Savater ere izanen da.

Hiru alderdietako batek ere ez du ordezkaritzarik Altsasuko Udalean. PPK hautagaitza aurkeztu zuen eta 5.768ko erroldatik 150 boto jaso zituzten. Foru hauteskundeetan popularrek 160 altsasuarren babesa jaso zuten eta laranjek 47 boto. 2016ko ferietako liskarra eta gero, hiru alderdietako ordezkariek aurretik Altsasuko Guardia Civilaren kuartelean izan dira.

Udalak Altsasuren "erabilera eta manipulazioa" salatu ditu

Altsasuarrek "azken bi urtetan izan duten jarrera zibikoa eta eredugarriari erabateko babesa" eman dio udalak

ALTSASU

Igandean eskuineko alderdi batzuek Altsasun egin nahi duten ekitaldiaren harira, Altsasuko Udalak erakunde adierazpena onartu zuen herenegun. Onartutako idatzian "zenbait politi-

ka eta hedabide sektorek Altsasuko herriari ezarri dioten eta ezartzen segitu nahi dioten erabilera eta manipulazioa guztiz salatzen ditu Altsasuko Udalak eta herrian beharrezkoak ez diren amorru eta tentsio giroa

sortu nahi duten jarrerak eta jokabideak gaitzesten ditu".

Udalak Altsasuko herriari "erabateko babesa" azaldu dio. Horrekin batera, "altsasuarrek elkarbizitza, normalizazio, justizia eta proportzionaltasunaren alde azken bi urtetan izan duten jarrera zibikoa eta eredugarriari erabateko babesa" eman dio. Geroa Bai, EH Bildu, PSN eta Goazen Altsasu alde eta UPNk kontra egin zuten.

Altsasun onartutakoa Nafarroako Parlamentuko Bozera-

maileen Batzordeak astelehenean onartutako bera zen. Han gobernuari eusten dion laukoak alde bozkatu zuen, PSN abstenitu egin zen eta UPNk eta PPK kontra bozkatu zuten.

Adierazpenak bazuen beste puntu bat alderdi guztiek alde bozkatu zutena: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako herri guztietan bakearen eta elkarbizitzaren aldeko konpromisoa berresten du, eta hori lortzeko lanerako prestutasuna azaldu ere".



España Ciudadana plataformaren ekitaldia Foru plazan izanen da.

Gobernuak: "duintasun adimendunez erantzun"

Neurrigabekerien aurrean jokabide hori hartzeko eskatu du Nafarroako Gobernuak Altsasun igandean deitutako ekitaldiaren kontura. "Altsasuren historia 2016ko lastailaren 15ean ez dela hasten edo eteten" gogorarazi du

SAKANA

España Ciudadana plataformak Altsasun iganderako deitutako ekitaldia dela eta, Nafarroako Gobernuak erakunde-adierazpena onartu zuen herenegun eta nafarrei dei egin die "zeinahi neurrigabekeriaren aurrean, duintasun adimendunean, heldutasun demokratikoan eta gizalegean funtsaturiko erantzuna eman dezan".

Uxue Barkos Berruezo buru duen gobernuak, "elkarbizitzaren aldeko konpromisoaren ikuspegia kontuan izanik, proportzionaltasuna eta erantzukizuna eskatu du eragile politikoan baieztapen eta ekintzetan, eta

askatasunaren defentsa, pluraltasuna eta zintzotasuna ezaugarri dituen Nafarroako herriarekiko errespetua" aldarrikatu

askatasunaren defentsa, pluraltasuna eta zintzotasuna ezaugarri dituen Nafarroako herriarekiko errespetua" aldarrikatu

zuen. Aldi berean, "Altsasuren, eta hedaturaz Nafarroaren, erabilera okerra" errefusatu eta salatu zuen. Foru gobernuak kideen iritziz, "diskurtsoetatik gairatu beharreko arerioaren irudia behin-betiko baztertu beharko genuke, halakoek iraganeko muturreko jarreretara bultzatzen baikaituzte".

Altsasuren beste irudi bat

Gobernuak kideendako "Altsasuko historia ez da hasten edo eteten 2016ko lastailaren 15ean. Gobernu honek ez du data hori baztertu proportzionaltasunaren aldeko aldarrikapenean, baina ez du inolara ere onartu Altsasuko izaeraren argazki finkoa denik". Horregatik, gogorarazi du garraio-bideen lotune eta industria-herria izanik Altsasu hazi egin zela eta "pluraltasuna eta aniztasuna herriaren bereizgarri bilakatu dira".

Altsasu "gizarte oso ekintzaileria" dela nabarmendu zuten foru-exekutibotik, altsasuarren "konpromiso sozialaren balio nabarmena eredugarria" dela gaitzigitu dute gobernutik, Errege Eguneko elurtea eredutzat jarri zuten.

ARRUAZUKO OSTATUA ERRENTAN EMATEKO IRAGARKIA

Baldintzen plegua:

Uharte Arakilgo udaletxean dago interesdunen eskura, eta kontratazio-atarian ere bai.

Proposamenak aurkezteko tokia eta epea:

Uharte Arakilgo udaletxean, 2018ko azaroaren 23ko 14:00ak baino lehen.

Uharte Arakilen, 2018ko azaroaren 2an. Peio Betelu Ganboa, Arruazuko Alkate Presidentea

Arruazuko Udala



Ogiaren artisauak

PORTUKO okindegia



ETXARRI ARANATZ: 948 460 988

ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

"Egoera honetatik batuta ateratzea espero dut"

JAVIER OLLO MARTINEZ ALTSASUKO ALKATEA

Horixe esan digu alkateak, igandeko España Ciudadana plataformaren Altsasuko ekitaldiaz egin diogun elkarrizketan

ALTSASU

Altsasuarrek nola hartu dute igandeko ekitaldiaren berri?

Segur aski altsasuarren artean hainbat iritzi egonen dira. Baina, nire ustez, gehienek duten iritzia da Ciudadanosek antolatutako duen ekitaldi politiko horren helburua dela bere lehia politikorako Altsasu herri gisa erabiltzea. Noski, eskubidea dute hemen ekitaldi politiko bat egiteko. Baina ezin dute Altsasu herri bezala erabili euren interes edo lehia politikorako.

Bakarren batek eskatu dizu haiei baimenik ez emateko?

Beste aukerarik ez genuen galdetu duenik izan da. Baimena zergatik eman dugun... Nafarroako eta udaleko arauak jarraituta administrazio publiko batek halako eskaera bati ezin dio baimenik ukatu. Eman beharra dugu. Azken finean, eskubidea dute.

Zeinek du ekitaldia debekatzeko eskumena?

Epaileek edo gobernu ordezkariak. Ekitaldi politiko horretarako Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzak ere baimena eman du. Guk, udal gisa, espazio publikoa uzten dugu. Noski, bertan jarriko dituzten aparailuen arabera tasak kobratuko dizkiegu.

Egia da PPK, beste deialdi baterako, biharko baimena eskatu zuela?

Bai, baina nik uste ez duela zirikusirik Altsasuko auzia deituarekin. Sinadura bilketa bat egin nahi zuten Altsasun. Baina asteazkenean jakin genuen ez dela sinadura bilketarik egonen. **Zer iruditzen zaizu ekitaldia Altsasun egitea?**

Altsasuko Udalean erakunde adierazpena onartu dugu. Idatzian argi eta garbi esaten da: "bakearen eta bizikidetzaren aldeko apustua eginez, gaizki ikusten dugu Altsasuko herria erabiltzea euren politika lehiarako". Nik, alkate bezala, probokaziotzat jotzen dut. Eta es-



Javier Ollo, Altsasuko alkatea, asteazkeneko plenoan.

"ALTSASU, HERRI BEZALA, POLITIKA LEHIA HORRETATIK KANPO EGON BEHAR DA"

pero dut probokazio horretan inor ez erortzea.

Zergatik deitu dute Altsasura?

Arrazoiak argi daude. 2016ko lastailaren 15etik hona Altsasu komunikabide guztietan dago. Gau hartan gertatu zena erabili da baita Altsasuren irudi ez erreala emateko. Oraindik hainbat hedabidek eta alderdi politikok irudi hori erabiltzen ari dira. Irudi ez erreala. Horregatik etorriko dira. Lehen esan bezala, Altsasu erabiltzea euren interes eta politika lehiarako. Eta Altsasu, herri bezala, politika lehia horretatik kanpo egon behar da.

Segurtasunak kezka iturri izan behar du? Edo ez?

Ni kezkatuta nago. Eta horregatik espero dut lasaitasuna egotea. Guztien arteko errespetua egotea. Hori da nire kezka eta nik nahi dudana. Nafarroa-

ko Gobernuan ere kezkatuta daude. Harekin eta Espainiako Gobernu Ordezkaritzarekin harremanetan gaude.

Zer eskatzen diezu altsasuarrei igandean?

Lasaitasunez jokatzeta. Probokazioetan ez erortzea. Hainbat alderdi politikok nahi duten irudia ezin diegu eman. Hainbat ekitaldi daude antolatuta. Guztiak egin ahalko dira segur aski. Baina nik uste dut guztien arteko errespetua egon behar dela. **Eta etorriko bisitarietara?**

Euren ekitaldi politikoa egin, gainontzekoei ezer ez esatea. Eta herria errespetatzea. Ez bakarrik etorriko direnei. Baita hitza hartuko dutenei ere eskatzen diet Altsasu herri bezala errespetatzea.

Altsasu egoera honetatik nola espero duzu ateratzea?

Azken bi urtetan bezala, batuta. Nik uste dut azken bi urteetan altsasuar gehien artean batasun handia egon dela. Komune hainbat elementu izan dira, bilatu ditugu. Uste dut hori agerian utzi behar dela. Bata-suna egon da eta espero dut astelehenetik aurrera ere batasuna egotea.



Igandeko ekitaldia dela eta Sortuk argitaratu duen kartela. UTZITAKOIA

Sortuk: "ez diegu nahi duten argazkia oparitu"

"Altsasuko herri batzarrak antolatu dituen protesta ekimenetan parte hartzeko gonbidapena" egin du

SAKANA


Sakanako Sortuk "izaera neofrankista duten alderdi batzuk Altsasuren kontra sortu duten kanpainaren aurrean" larunbatean, 17:30ean, egingen den manifestazioan eta igandean, 10:00etatik aurrera, kultur gune parean izanen den "eskubideen eta askatasunen gunean" parte hartzera deitu ditu euskal herritarrek. Ezker abertzaleko alderditik ziurtatu dutenez, "izaera homofoboa, sexista, matxista eta klasista duten hiru alderdik antolatu duten antzerki probokatzailak herrian ez du inongo babesik". Eta gaineratu dutenez, "Guardia Civila eta autobusez kanpotik ekarriko dituztenetik harago, mina eragin eta umiliatu nahi duen ekimena inork ez du begi onez ikusten. Sufrimendua areagotu nahi izatea gaixo diren mentalitateen ikuspegitik uler daiteke soilik".

Ezker abertzaleko alderdiak "irmoki" salatu du "Riverak, Abascalek, Casadok eta Guardia Civilak Altsasuko eta Nafarroako bizikidetzeta erasotu nahi izatea. Aski da Ebrotik behera boto eskukada bat lortu nahi izateagatik gatazka eta krispazioa sortzen jarraitzeaz". Eta Jon Idigorasen hitzak gogora ekarri ditu: "atera itzazue zuen esku zikinak Euskal Herritik".

Sakanako Sortutik gogorarazi dute ibarrak "hamarkadak" daramatzala "erregimenaren indarren jazarpena pairatzen.

Sakandarrek kriminalizazio saio iraunkorra jasan dute: intsumisioa babesteagatik alkateak desgaituak izan dira; ikurriña altxatzeagatik mehatxuak eta isunak jaso dituzte hainbat udaltek; indar para-polizialek herritarrek bahitu dituzte; ehunka lagun atxilotu, espetxeratu, torturatu eta erail egin dituzte bere pentsamolde politikogatik..." Egiteko horietan guztietan Guardia Civilak "ezinbesteko papera jokatu" duela nabarmendu dute. "Gorputz militar honek Euskal Herriaren askatasunaren alde jardun diren herritarrek beldurtu, kontrolatu eta zantatu ditu. 934. urtean Altsasun Emilio Iguzkizaren erailketatik, Otsaportillotik, Mikel Arregitik, Angel Gurmindotik pasaz, 82 urte beranduago taberna batean emandako liskarreraino. Uneoro, indarrez inposatu nahi izan dute Espainiaren batasuna".





"Kaleak betetzeko gogoak ekarri, Altsasu betetzeko, gure kaleak gure eginez".

Faxismoaren kontra, Altsasura deitu dute igandean

"Mila bira, mila kolore faxismoaren kontra!" lelopean hilerrian jarri dute hitzordua 10:00etan

ALTSASU

Plataforma Cuidadanaren bisitarekin bat ez datorren Altsasu Faxismoaren Kontra herri plataformak adierazi denez, plazako ekitaldiko parte-hartzaileak "herriko plazara etorri eta sinbolo bilakatu nahi gaituzte, zapalkuntzaren sinbolo". Eta ukatu egin dute hiru alderdiek "askatasuna defendatzera" etorriko direnik. Eta hirukoak defendatzen dituen hainbat "askatasun" zerrendatu dituzte: "gu espetxeratzea, soldata miserableak mantentzea, aborturako eskubidea ukatzea, gu erreprimitzea, errefuxiatuak mugan egurtu eta migrazioak eragiten dituzten armak hara eta hona esportatzea... Ez dute inor engainatzen, autoritarismo berri bat aldarrikatzera datozen faxistak dira. Gure plazara etorri eta gure espazioak bereganatu nahi dutenak".

Horregatik, Euskal Herri osoko herri mugimenduei eragile eta norbanakoei igandean Altsasura joateko deia egin diete. "Antifaxistei, feministei, euskaltzaleei, internazionalistei, arrazismoaren kontrakoei, errepresioaren kontrakoei, ikasleei, gune autogestionatuei... Zuen aldarriak Altsasura ekarri, hamaika frontetatik faxismoaren aurka egiteko. Ekarri aldarriak, pankartak, txarangak, bafleak..."

Altsasu faxismoaren kontra herri plataformatik ere oharra zabaldu dute: hori guztia "konfrontazio fisikoa ekidinez" eginen dute. Haien asmoa zein den argi azaldu dute: "plazaren inguruan ibiliko gara musika eta aldarriz beteriko giroarekin, faxistei hemen ongietorriak ez direla argi utziz. Errepresio-indar zein faxisten probokazioetan erori gabe, espaziorik ez diegu utziko gure herrian eroso sentitzeko".

"Herriarekiko eraso" salatzen asteburua

Altsasuko herri batzarretik "eraso hau salatu eta Altsasurekiko elkartasuna adierazi nahi duten guztiei" larunbateko eta igandeko ekitaldietan parte hartzera gonbidatu dituzte. "Geure minarekin jolasten ari dira, gure eskubideak zapaltzen dituzte"

ALTSASU

Altsasuko herri batzarretik azaldu dutenez, "erantzun herritarra, bateratua, zabala, sendoa, duina eta bilatzen duten enfrontamendurik gabea ematea" dute helburu. Batzarretik astebururako prestatutakoa honakoa da. Alde batetik, larunbatean, *Utzi Altsasu Bakean* lelopean manifestazioa egitea. Foru plazatik abiatuko da 17:30ean.

Igandean, berriz, "Eskubide eta askatasunen gunea" sortuko dute kultur gune pareko zabalgunean. Azaldu dutenez, "eremu irekia izanen da, datozen horiek zapaltzen dituzten eskubideen isla izanen dena. Kultur ekimenak, musika emanaldiak, parodiak, Altsasuko eragileen eremua... Hori guztia ahalbidetuko duen ekimen aldarrikatzailea izanen da, festa giroan egingen dena. Gure herria zapaltzera etorriko direnak alde egingen dutenean festa Altsasuko kaleetan barna zabalduko da".

Argudioak

Herri batzarrean bildutako altsasuarrek adierazi dute "nazkatuta daudela hainbeste gezur entzuteaz, hainbeste irain eta probokazio jasan behar izateaz. Etengabea izaten ari baita komunikabide batzuk, polizia-in-



Herri batzarren iritziz: "enfrontamendua bilatu eta etekinak atera nahi dituzte."

darrak eta hainbat arduradun politikoren aldetik jasan behar izan dugun mespretxua, errespetu falta eta erasoak". Aitortu dute azken urteetan "min handia" egin dietela, "baina jakin izan dugu herri gisa erantzuten, elkartzen, haserreak eta une pozgarriak partekatzen, kolpeak eta ilusioak partekatzen, nekea eta itxaropena konpartitzen".

Ciudadanos, Vox eta Partido Popularraren "bisitaldia gure herriarekiko beste eraso bat da, ankerkeri osoz egina gainera". Aipatu alderdien jokabidea "uler-

tezina eta onartezina" dela deritzote. "Atzean ezkutuko interesak daude eta faxismoarekin antza osoa duen praktika da. Herri oso baten sufrimendua erabili nahi dute haien arteko hauteskunde lehiarako". Altsasuko herri batzarretik ziurtatu dutenez, "badakigu gure herria ez dela haien helburua, berez aski larria litzatekeena. Are zikinagoa da jokabidea, gure herria aitzakiatzat hartu nahi dutelako, eskubide eta askatasunen ukaziorako aitzakia eta sinbolo bilakatu nahi dutelako".

ZUREKIN 1964 GEROZTIK

ALTSASU / 948 562 205 / 673 821 346 / Texeria Aldapa S/N

ZUREKIN 1964 GEROZTIK

AMAYAn ez dugu soilik gure itxura aldatu. Horretaz gain, zurekin batera gure etorkizuneari lan egiten ari gara.

Zerbitzua eta kalitatea hobetzea dugu helburu. Pixkanaka aldaketa horiek sumatzen hasiko zara.

<p>ALTSASU 678 323 403 • Iruña hiribidea, 48 948 468 026 • Zumalakarregi Plaza, 3 670 389 017 • San Juan Kalea, 50 948 562 185 • Otadiko Kristo deuna, 19</p>	<p>OLAZTI 948 468 755 • Orreaga kalea, 1</p> <p>ETXARRI-ARANATZ 948 461 660 • Kale Nagusia, 15</p> <p>ARAIA 945 314 572 • Andoni Urrestarazu, 3</p> <p>VITORIA-GASTEIZ 945 148 368 • Arriagako Atea, 12</p>
--	---

Bi urterako ikerketa lana

Heldu den urtean ez da Adituko arkeologia talderik izanen Uharte Arakilen lanean. Bi indusketa guneetan jasotakoa aztertze laborategi lanean zentratuko dira. Emaitzak bi urte barru espero dituzte

UHARTE ARAKIL

“Arkeologia-indusketa egun bakoitzari bizpahiru laborategi lanegun dagozkio. 9 urtetan 22 hilabetez indusketa egin dugu eta, batzuetan, 15 pertsonako taldea aritu gara lanean”. Datu horiek emanda Fran Valle de Tarazaga Monterok (Adituko indusketa eta ikerketa ardura-duna) aurretik laborategian duten lanaren tamaina azaldu nahi izan zuen, Zamartzen emandako hitzaldian, larunbatean.

Dagoeneko 70 bat gorpuzkien antropometria-azterketa despeditu dituzte. Bakoitzaren 8-10 orriko txostena egiten dute eta han jasotzen dituzte: hil zenean pertsona hark zuen adina, sexua, altuera, edozein bereizgarri fisikoa nabarmen, patologia-arrastoak (gaixotasunak), traumatismo edo kolpeen arrastoak (hil aurretik edo ondoren). “Ahalik eta analisi osatuena egiten saiatzen gara. Hezurdurek eman diezaguket informazio guztia jasotzen saiatzen gara”. Aztertzeke beste 130 bat gorpuzki gelditzen zaizkie.

Horien ondoren kimika eta erradiologia azterketak egin nahi dituzte. “Kontserbazioaren arabera gorpuzkiek duten potentzialitatea zein den jakiteko sei lagin bidali ditugu”. Poznan Unibertsitatean (Polonia) karbono-14 bidezko haien kronologia datazioa eginen dute. Aralarko santutegian berreskuratutako gorpuzkietakoak dira seiak. “Haien kontserbazio baldintzak bereizgarriak dira: kareharri asko dago, estratigrafia txikiagoa, eguraldiaren eragin handiagoa...” Aditukoak argitu zuenez, gorpuzki guztien karbono-14 dataziorik ezin dute egin. “Kasu askotan errepikakorra edo antzua litzateke, lehe-



Gorritz defentsa horma. Urdinez gerora jasotako hormak. Eraikina osa lukete.

nik, estratigrafia-sekuentzia ona dugulako. Batzuetan ondoren zein dagoen badakigu. Azterketa batzuk eginda kokatu gaitezke. Guztiena egitea dirutza da”.

Mercyhurst Unibertsitateak (Pennsylvania, AEB) gorpuzkien isotopo azterketa egingen du. “Eskaintza ezin hobea egin digute eta, beraz, gorpuzki guztiak aztertuko ditugu, 200 ingururena. Horrek emaitza zehatzagoak lortzea ekarriko du”. Estrontzio-isotopoaren bidez nongoak ziren jakinen lukete, “baina garestiegia da eta oraingoz ezin da”. Valle de Tarazagak azaldu zuenez, isotopo bidezko ikerketarekin dieta eta zalantza edo ziurtasuna duten hautatutako gorpuzkien jatorria zein den jakinen dute.

Jasotako emaitzekin bulego eta ikerketa lana egin beharko dute ere. Valle de Tarazagak jakinarazi zuenez, antropometria-azterketak eta karbono-14 datazioa egiten lan karga handia dute. Azken horrek ematen dituzten datak indusketan opatu dituzten egiturekin alderatuko dituzte.

Egiturak

Aralarko santutegian hiru urtetan egindako indusketak hain-

bat egituren berri eman dute. Alde batetik, 1977an iparraldean botatako bordarena (zaldiak gordetzeko erabiltzen zen). Ikerlariak uste dute santutegira iparraldetik iristen zela garai batean jendea eta elizaren iparraldeko belardian egindako indusketan U itxurako egitura bat opatu dute. Elizari perpendikularra den paretak aipatutako bordaren eta Pilareko orientazio bera du (hego-mendebaldea). Beste biak berriagoak dira, aurrekoari itsatsiak eta santutegiari paraleloak dira.

Pareta horien arteko zorua harrizko lauzekin egina zegoen, hainbatetan berreginda zegoen eta beherantz joera zuen (mendebalderantz), atea egonen litzatekeen alderantz. Hainbat belaunaldietan berrerabilitako eraikina izan zen. Pareta horien artean zilar eta brontze “arrasto ederrak” opatu zituzten. Material horien urtutako aztarnak ere opatu zituzte. Txanpon ugari opatu zituzten ere. “Batek harritu gintuen: Akitaniako Woodstock-eko Eduardoren Galesko azken printzearen, Printze Beltzaren txanpona (1330-1376). Toki hori ezohikoa da, elizari lotutako tokia zen”.

Uharteko bi indusketen zergatia

Aditukoendako lana “guztia bat da. Lotura duten bi arkeologia-indusketa dira, erromatarren masioa batetik eta, bestetik, mendi puntan dagoen Erdi Aroko erlijio zentroa”. Zamartzen garapena zein zen ikertzera etorri ziren, “erromatarren garaitik Erdi Aroa”. Apenas dokumentaziorik ez dagoen gure historiaren zati bati buruzko argibideak lortu nahi zituztelako etorri ziren. Aldi berean, “hemen zer nolako jendea bizi zen” jakin nahi zuten.

Zamartzen opatutakoaren artean Donejakue bideko errozesak zeuden. “Hori arazo bat zen. Ez dakigu nondik etorri ziren eta ezin dugu soilik Nafarroako populazioaren profila egin. Horregatik, gertu zegoen kontrasterako populazio bat behar genuen, bertako biztanleak nolakoak ziren zehazten lagunduko ligukeen patroiak egiteko. Hala, kanpotik etorritakoak diskriminatzeo aukera genuke”. Horregatik, jo zuten Aralarko indusketa egitera, “kanposantua zegoela bagenekielako”. Bateko eta besteko gorpuzkiekin bertako populazioaren profila osatuko dute. Bide batez, santutegiaren sorrerari buruzko informazioa opatzeko baliatu zuten indusketa.

Elizari perpendikularra den pareta toki gorenean dago jaso. Adituko ikerlarien iritziz santutegia barruan hartzen zuen defentsa-harresi baten zatia litzateke. Bestalde, Valle de Tarazagak argitu zuen santutegi ondoko hilerrian opatutako gorpuzki zaharrenak hego-mendebaldeko orientazioarekin lurperatu zituztela eta ondorengoak elizaren egungo orientazioarekin. “Litekeena da aurreneko ermita hark orientazio hori izatea. Gorpuzkien karbono-14 azterke-



Aldameneko irudian markatutako hiru hormetako bi.

taren bidez hilobien orientazio aldaketaren uneari data eman nahi diogu. Aldaketa horrek elizaren berreraikitzearekin bat egiten badu, ziurtatuko genuke hasieran elizak hego-mendebaldeko orientazioa lukeela eta egungoa emateko zuzendu zela”.

Bestetik, zirkulu erdiko egitura bat opatu dute iparraldean. “Iparraldetik inguratzen du eliza. Aginte zibilaren eta elizakoaren arteko muga markatzen zuen”. Mendebaldera eraikita dago, “edozeinek saltatu dezakeen harresi bat da”, iparraldean, haitza zizelkatuta dago.

Egitekoak

Indusketetan agertu diren Erromatar garaiko eta Erdi Aroko numismatika-azterketa egingen dute. “Txanpon ugari opatu ditugu bai Zamartzen bai Aralarko santutegian. Zamartzen, nik uste, 200 bat direla. Azterketa horrek komunikazio loturen berri emateko baliagarria izan daitekeela uste dugu. Orain arte ikusitakoaren arabera, ia bakarrik iparraldearekin lotura dago: Lyon, Bordele... Badirudi garai guztietan eraginak hortik heldu direla”. Lyon egindako erromatar txanponak agertu dira,



ARTXIBOA

“gehienak”, Bordeleko txanpon merobinjioak edo Erdi Aroko Frantziako IX. Luisen (1214-1270) txanponak ere agertu dira. “Opatutako guztiak iparraldera begiratzeko esaten digu. XV. edo XVI. mendea baino lehenagoko Gaztelakorik ez dugu opatu”.

Bestalde, numismatika-kronologia “argi dugu, akaberan ezik. Txanponekin, gutxi gorabehera, Constantinoren (306-337) garaian bukatzen dugu. Zalantza dugu Constantino edo ondorengo besteren baten garaioak ez ote dauden. Horrela erromatarren presentzia urte batzuetan luzatu daiteke”. Beste jendeekin izandako harremana ikertu nahi dute txanponen bidez. “Karbono-14ko emaitzak jasotzean, arkeologia estratuen kronologia datazio zehatzagoa egingen dugu. Baina ez soilik datazioekin. Materialekin ere. Txanponei data ematea erraza da baina, bestetik, zeramika eta bestelako elementuekin ez”.

Emaitzak izatean historia-azterketa egingen dute. “Esandakoa berretsi, datu gehiago lortu eta opatutakoari datu gehigarriak erantsi”. Azkena, argitaratzea eta aurkeztea litzateke. Zientzialdizkarietan eta bestelako ar-

soilik”, Erdi Aroa, erlijioa, jendea nolakoa zen... “ahalik eta informazio gehien lortu eta hainbat ataletan aletzen saiatuko gara”.

Opatutakoarekin zer?

Gorpuzkiak aztertu ondoren Nafarroako Gobernuari bueltatuko dizkiete. “Elizarekin eta gobernuarekin hizketatzen ari gara: atera ditugun tokiak jatorrizko erabilera dutenez, haiek gordetzeko hezurtegi bat edo zerbait eraikitze eta euren sorterrira atseden hartzera bueltatzeko. Elizan egokitutako tokiren batean leudeke, beti ere, kontserbazioa bermatuko duten baldintzekin. Eta beharko balira, eskuragarri”. Opatutako objektuetako zati batzuk Adituko eskutan daude, ikertzeko. Nafarroako Gobernuak gehienak ditu eta gutxi batzuk Zamartzen ikusgai daude behinean. “Etorkezunean, opatutako tokitik gertu, museo-espazio bat egin nahi genuke, bisitariak erromatarren masioaren eta Aralarko santutegiaren berri izan dezaten”.

Valle de Tarazagak aurreratu zuen heldu den urtean ez direla Uharte Arakilerara bueltatuko. Baina ez du baztertzeko zerbait sortzen bada une jakinen batean bueltatzea. Zamartzeren ekialdera dagoen txipudia aztertu nahiko luke. Baina oraingoz ezinezkoa da. Adituko kidea pozik dago bederatzi urtetan “arkeologiarekiko eta ondarearekiko interesa piztea lortu dutelako. Eta gizartea eta erakundeak (udala, eliza, gobernuak) busti direlako. Gizarteak arkeologiarekiko interesa azaltzen badu lortuko dugu gobernuak balibideak horretara bideratzea”.

gitalpenetan zabalduko dituzte la aurreratu zuen Valle de Tarazagak. Emaitzen berri Uharte Arakilgo udaletxean, Zamartzen eta Aralarko santutegian utziko dute. Uhartean aurkeztuko dute.

“Aurretik lan handia dago. Hezurdurak garbitzen aspertu egiten zara. Ikerketa gogaikarria da. Baina emaitzak fidagarriak izateko ez dugu metodologia sakrifikatu nahi, dena ongi egin nahi dugu”. Populazioaren profila egitean hainbat esparruetatik aurkeztuko dute: Erromatar mundua Zamartzen, “garai hartan gertatutakoa azalduko dugu

Datuak

- 9 urte indusketak egiten. Gutxien 2 hilabete izan dira, gehienez 4 pasa egon dira.
- 6 urte Zamartzen (2010-2015).
- 3 urte Aralarko santutegian (2016-2018).
- 24 arkeologo eta hainbat arlotako espezialistak aritu dira.
- 200 arkeologia, antropologia eta forentse-zientziatiko ikasle aritu dira, gehienak emakumezkoak.
- Ikasleak 20 herrialdeetakoak izan dira.
- Sakanako hainbat boluntario.
- 500.000 euroko ekonomia-eragin zuzena izan du 9 urteko jardunak.

NON ERABILI?



EROSKI BIDAIAK

ALTSASU

%5eko beherapena, hiri hoteletako eta garrario hutsen erreserbak izan ezik. Eskaintza ez metagarria.

LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA

URDIAIN

50 €ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

LARKA

ALTSASU

100 €tik gorako erosketengatik 10€ko deskontu bat (beherapenetan izan ezik).

LASTAI GASOLINDEGIA

ALTSASU

0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

FORD GABIRONDO

ALTSASU

Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulanetan.

PATXI GALARZA

IRURTZUN

% 5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100 €rengatik txistorra opari.

JM AGIRRE HARATEGIA

LAKUNTZA

50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

KAXETA

ETXARRI ARANATZ

% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

KATE INFORMATIKA

IRURTZUN

% 5eko deskontua 30 €tik gorako erosketetan.

IRUBIDE JATETXEA

ALTSASU

Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€.

Ezkurdia: "Finala jokatzeari ikaragarria litzateke"

PILOTA Igandean Lau T'erdiko Txapelketako finalerdia jokatu dute Joseba Ezkurdiak eta Mikel Urrutikoetxeak. Material aukeraketan arbizuarrak aipatu zuen orain arte egindakoak ez duela ezertarako balio, baina sentsazio onekin dagoela

Asteburuan jokatu dira Lau T'erdiko Txapelketako finalerdia, partida bakarrera. Larunbatean Bengoetxea VI.a eta Altuna III.a lehiatuko dira Labrit pilotalekuan (17:00, ETB1) eta igandean, aldiz, Bizkaian arituko dira Joseba Ezkurdiak eta Mikel Urrutikoetxea (17:00, ETB1). Ikusmina handia da, Labrit beteko da eta Bizkaia ere sarrera handia izango du.

Ezkurdia eta Urrutikoetxea gustura geratu ziren asteazkeneko aukeraketan Martin Alustizak aurkeztutako pilotekin. "Gustura geratu naiz. Azkarrak eta fuertak gustuko ditut, emandakoan mina egiten dutenak. Mikelen bat ere gustatu zait eta bestea lasaiagoa da, baina ez dago inolako aitzakiarik; guztiak onak dira lau T'erdian jokatzeko" azaldu zuen arbizuarrak.

Arbizuarrak aitortu zuen favoritoa bera denaren usteari buelta asko ez dizkiola ematen. "Orain arte egindakoak ez du



Urrutikoetxea eta Ezkurdiak, asteazkeneko material aukeraketan. ASPE

ezertarako balio. Sentsazioak onak dira, ongi ikusten naiz, txisparekin eta ligaxkan partida onak egin ditut. Ea orain arte egindakoa aprobetxatzen dudana. Baina finalerdia partida bakarrera jokatu beharra dago".

Urrutikoetxea, "goraka"
Urrutikoetxeak "goraka" egin duela deritzo arbizuarrak. "Oso konpletoa da, gauzak erraz egiten ditu, egiten duena ongi egiten du, erreto ikaragarria du, bolearekin txokora sartzen dizu

pilota eta oso zaila da ateratzea... pilotari handia da. Partida zaila izango da, opari gutxi egin beharko dizkiot. Oso ongi jokatu beharra dut irabazteko. Baina inportanteena da oso ongi nagoela, ongi ikusten naiz eskutatik, fisikotik... eta dena ematea, hori da koxka. Partida borobila egin beharra dut irabazteko; momentu onean nago eta ea aprobetxatzen dudana".

Bere jokoa egitera

Partida gogortzeari edo luzatzeari ez diola beldurrik nabarmendu zuen Ezkurdiak. "Orain arte egindako joko berdina egiten saiatu behar naiz. Sakea aprobetxatu, tantoan erritmoa jarri, pilota ahalik eta azkarren ibili... ea lortzen dudana. Berak erreto oso ona du eta bere sakeak ongi erantzun beharko ditut" aipatu zuen.

Urte ona borobiltzera

"Urte ona izaten ari da eta horrek gogoak eta animoak ematen dizkizu aurrera egiteko. Binakakoa irabazi eta Buruz Burukoan ere ongi ibilita pausu bat aurrera eman dudala sentitu dut, eta konpetitiboa izaten ari naizela arlo denetan; horrek ilusioa ematen du, oilarrekin lehiari egotea gauza handia da niretzat. Handia litzateke Lau T'erdiko finala jokatzeari, non eta Nafarroan. Zaila dago, baina urtea ongi bukatzeko ikaragarria litzateke" onartu zuen Ezkurdiak.



Joanes Bakaikoa.

Promesetan Bakaikoa finalera

Promesen Mailako Lau T'erdiko finalerdietako ligaxkako 3. partidan erabaki zen zein pilotarik jokatu duten promesetako kaiolako finala. Dariori 22 eta 11 irabazi eta gero, finalerako txartela lortu zuen Joanes Bakaikoa etxarriarrak. Azaroaren 10ean Labriten jokatu den final handian Promesen Buruz Buruko txapeladuna den Etxarri Aranazko aurrelariak Jon Ander Peña, Peña II.a izango du aurkari.

2018KO UDAZKENA ETA NEGUKO ESKAINTZAK

DAKITENENTZAT

Profesionalen makinak, guztionatzat

Zure denda espezializatuan

Zumurdiñeta Ind., 6
948 46 17 34
31820 Etxarri Aranatz

**BAIZA MOTOR
ETXARRI SL**

Akaborro Ind., 19
948 50 03 92
31860 Irurtzun

PREFERENTEIA

7. JARDUNALDIKO EMAITZA

Lezkairu - Etxarri 2-3

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Arrotxapea	15
3	Etxarri Aranatz	12

PARTIDUA

LARUNBATEAN

15:45 Etxarri - Mutilbera (San Donaton)

Garaipen polita Lezkairun

Partida oso lehiatuan, Etxarrikoak finago ibili ziren Lezkairukoak baino eta Fernandez, Alberdiren eta Goikoetxearen golei esker hiru puntu garrantzitsu lortu zituen taldeak. Atzo Kopako partida jokatu zuen Etxarri.

ERREGIONALA

8. JARDUNALDIKO EMAITZAK

San Ignacio - Lagun Artea	2-0
Lagunak B - Alsasua	2-2

SAILKAPENA

ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Lagunak	20
2	Lagun Artea	19
3	Altsasu	17

PARTIDUAK

LARUNBATEAN

16:00 Altsasu - Aurrera (Dantzaleku)

IGANDEAN

15:45 Lagun Artea - Lagunak (Zelai Berr)

Lidergoa jokoan Lakuntzan

Iruñean Lagun Artea saiatu zen, baina San Ignaciok lortu zuen garaipena. Eta Barañainen bitan aurreratu zen Altsasu Imanoli esker, baina berdintzea lortu zuen Lagunak taldeak. Lagun Arteak lidergoa galdu zuen eta Lagunak da lider berria; hain zuzen ere bi taldeek lidergoa izanen dute jokoan igandean Lakuntzan.

EMAKUM. ERREGIONALA

8. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Osasuna 0-3

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Osasuna	24
9	Altsasu	10

PARTIDUAK

IGANDEAN

17:45 Huarte Itaroa - Altsasu (Aretan)

Altsasuarrek Huarte Itaroa izango dute aurkari

Asteburuan Altsasuk Osasuna liderra hartu zuten Dantzalekun. Gure neskek saiatu ziren, baina 0 eta 3 irabazi zieten Osasunakoek. Igandean Huarte Itaroa txapeldunordearen kontra ariko dira.



Arakilgo Zaldia taldea.

Zalduaren eta Izalsaren arteko partida, atzeratuta


FUTBOLA Elomendiko Txapelketan atzeratutako partidak jokatu dira asteburu honetan

Aurreko asteburuan Zaldia taldea Izalsaren kontra aritzeko zen, baina partida atzeratu zuten eta bihar, larunbatean, jokatu da. Hala ere, oraindik lidergoari eusten dio Zaldia (12 puntu) eta partida bat gutxiagorekin puntu bat ateratzen dio Barasoain taldeari (11 puntu). Ardoi-Poukas da hirugarrena (10 puntu).

Sakanako Futbol Topaketak Altsasun hasiko dira igandean

FUTBOLA Kimuen partidak goizeko 10:00etan hasiko dira, Dantzalekun, eta benjaminenak 12:00etan

Igandean hasiko dira Sakanako Futbol Topaketak. Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu, Sakanako futbol klub eta taldeen laguntzarekin. Futbola sustatzea da helburua, eta txikienei txapelketa batean parte-hartzea ahalbideratu nahi zaie, baina ez da txapelketa lehiakorra eta, horregatik, ez da sailkapenik egiten. Sakanako beste herrietako neska-mutikoekin futbolearen arituz ongi pasatzea da asmoa, euren arteko harremana sustatzea. Topaketetan futbolearen eta areto futbolearen



Sakana Igeriketa Taldekoak aurreko jardunaldi batean. SAKANA IGERIKETA TALDEA

Altsasu igerilarien topaleku izanen da bihar

IGERIKETA Zelandi kiroldegiak Nafar Kirol Jolasen Nafarroako Igeriketa Txapelketako jardunaldia hartuko du bihar, azaroaren 3an, larunbatean, 17:00etan. Nafarroako Promesen Ligako Kimuen mailako jardunaldia izango da jokatu dena

Larunbatean XXXII. Nafar Kirol Jolasen Nafarroako Igeriketa Txapelketako jardunaldia hartuko du Altsasuko Zelandi kiroldegiko igerilekuak. Zehazki, Nafarroako Promesen Ligako Kimuen mailako txapelketako jardunaldia izango da Altsasun jokatu dena. Ondoko klubetako igerilariak lehiatuko dira: Burlada CN, Anaitasuna SCDR,

Oberena I, Ardoi IT, Atarrabia, Lagunak SM, Mendialdea, Berrioplano, Bisaires, Aoiz eta Sakana I.T.

Kimuek Altsasun egin beharreko lana ondokoa da: 100 m bular gizonak, 100 m bular emakumeak, 400 m librean gizonak, 400 m librean emakumezkoak eta 4x50 m librean gizonak. Aipatzekoa da ere, Altsasuko pro-

baz gain, Noainen benjaminen mailako proba izanen dela, goizeko 10:00etan, eta bertan sakanak ariko direla.

60 igerilari sakandar

Sakana Igeriketa taldean 60 igerilari trebatzen dira Mikel Galan entrenatzailearen esanetara. Benjaminak, kimuak, haurrak eta kategoria absolutukoak dira.

ariko dira: Altsasuko Tipi Tapa, Urdiain, Etxarri Aranatz 1, Etxarri Aranatz A, Lagun Artea 07 eta Lagun Artea 08. Areto futbolearen aritzen direnean klub bereko talde gehiago gehituko dira, Betelurekin batera.



Sakandarrak futbolearen trebatzen.

Topaketak

Sakanako Futbol Topaketan 1. jardunaldia igandean jokatu da, Altsasuko Dantzaleku futbol zelaietan. Kimuak goizeko 10:00etatik aurrera ariko dira eta benjaminak 12:00etatik aurrera

Kimuak:

- 10:00 Etxarri Aranatz 1 / Tipi Tapa
- 11:00 Etxarri Aranatz A / Urdiain
- 11:00 Lagun Artea 08 / Lagun Artea 07

Benjaminak:

- 12:00 Etxarri Aranatz 1 / Aralar Mendi
- 12:00 Etxarri Aranatz A / Sutegi
- 13:00 Urdiain / Altsasu C
- 13:00 Altsasu A / Altsasu B

PILOTA Nafarroako Gazteen Lau T'erdiko Txapelketa martxan

Abian da Nafarroako Gazteen Mailako Lau t'erdiko Txapelketa, Guillermo Mazo Memoriala. Nafarroako 13 pilota klubetako 36 pilotari arituko dira lehian aipatu txapelketan, tartean pilotari sakandarrak. Partidak Etxarrengo Aranburu pilotalekuan jokatu dira, asteartean, eta Lekunberriko Jaian Jai pilotalekuan, asteazketan. Final handia abenduaren 3an jokatu da Iruñeko Labriten.

Asteartean, Etxarreen, Telletxeak (Erreka) 18 eta 0 irabazi zion Perezi (Zugarralde), Lakabek (Paz Ziganda) 18 eta 4 Gerendiaini (Ultzama) eta Bustinck (Zugarralde) 18 eta 13 Zulaikari (Beti Onak).

Eta asteazkenean, Lekunberri, Saralegik (Larraun) 18 eta 13 hartu zuen menpean Fernandez (Beti Onak), Amillanok (Huarte) 18 eta 7 irabazi zion Martinezi (Larraun) eta Berastegik (Irurtzun) txapelketan aurrera egitea lortu du Beti Onak klubeko Romero 18 eta 7 bidean utzita.

KIROLDEGIA SDA-Altsasu Kirol Elkarteak ohiko batzarra astelehenean

Sociedad Deportiva Alsasua – Altsasu Kirol Elkarteak ohiko batzarrera deitu ditu bere bazkideak. Batzarra astelehenean izanen da, azaroaren 5ean, 19:00etan, Iortia Kultur Gunean.

Gai ordena hizpide hartuta, lehen puntuan aurreko batzarren aktaren irakurketa eta onarpena egingen dute, bazkideek egoki ikusten badute. Bigarren puntuan 2017-2018ko aurrekontuak aztertuko dituzte, haien onarpenerako.

Hirugarren puntuan 2018 / 2019 denboraldi berrirako aurreikusi duten programa, ekitaldiak eta aurrekontuak izanen dituzte hizpide, haien onarpena egiteko, eta laugarren puntuan juntako kideek proposamen zehatza egingo diete bazkideei kuoten eguneraketaren inguruan. Egindako proposamena aztertu eta erantzuna eman beharko dute SDA elkarteak bazkideek. Bukatzeko, bazkideen eskari eta galderei erantzuna emango die SDAko juntak.

Osasuna Magnak denboraldiko bigarren garaipena lortu zuen

ARETO FUTBOLA Santa Colomari 2 eta 1 irabazi eta gero, gaur Antequeraren kontra ariko da talde berdea

2018/2019 denboraldiari tamaina hartzea kostatzen ari zaio Osasuna Magnari. Aurreko ostiralean Santa Colomaren kontra aritu ziren Imanol Arregiren mutilak. Osasuna Magnak dominatu zuen partida, baina, atzera ere, punteria falta izan zen jokalar berdeen gabezia nagusia. Kontrolatua zuten partida istea kosta egin zitzaizen berdeei. Gol aukera nabarmenak sortu zituzten, baina aukera horiek gauzatzea kosta egin zitzaizen eta horrek antsietate handia sortu zion taldeari. Zorionez, azkenean 2 eta 1 irabazi zuen talde berdeak, Rafa Usinek eta Araçak sartutako golei esker.

“Garaipen justua izan da, baina alde gutxikoa. Kontrako atean asmatzea kostatzen ari zaigu eta puntuak galtzea dakar horrek. Baina taldeak joko ona sortu du” azaldu zuen Imanolek.



Santa Colomaren kontrako partida. XOTA

Antequera, hurrena

Palma Futsal da lehen mailako lider berria (18 puntu). Osasuna Magna 10. postura igo da (8 puntu). Gaur Andaluzian jokatu du talde berdeak, 7 punturekin sailkapenean 12.a den Antequeraren kontra. Postua dago jokoan.



Kadeteek eta jubenilek helduekin batera osatuko dute proba.

Bihar Sakanako Herri Lasterketa Olaztin

ATLETISMOA Bihar, larunbatean, jokatu da Sakanako Herri Lasterketa-Burundesa Sari Nagusia, Olaztin. 16:00etan kategoria txikikoen probak jokatu dira eta 17:00etan helduen lasterketa eta Errefuxiatuen Aldeko Martxa

Olaztin jokatu da, bihar, larunbatean, XVIII. Sakanako Herri Lasterketa-Burundesa Sari Nagusia. Sakanako Mankomunitateko Kirol eta Anitzartean Kulturartekotasun zerbitzuek antolatuta dute proba, Dantzaleku Sakana Atletismo Klubaren, Olaztiko Udalaren, Sutegi klubaren, Santa Ana eta San Migel elkarteen, eta HEPNA eta Sakana Harrera Arana taldeen laguntzarekin. Burundesa da babesle nagusia, Olaztiko eta Sakanako beste hainbat babeslerekin batera. Sakanako Herri Lasterketa aurrera eramaten duten pertsona, erakunde eta babesle guztiei “eskerrik beroenak” eman dizkie Sakanako Mankomunitateak.

Lasterketa baino gehiago

Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak azaldu duenez, Sakanako Herri Lasterketaren helburua atletismoa sustatzea da. «Atletismoak beti indarra izan du gurean. Hor dago Dantzaleku

Sakana taldea, proba honetan ere laguntzaile izango duguna. Bestalde, Sakanan atletismo lasterketa asko daude; horregatik sortu zen Sakana Atletismo Kopa. Korrikalari asko ditugu gurean. Askok azaroaren 11n jokatu den Behobia-Donostian parte hartuko dute, eta Behobia lasterketa prestatzeko Sakanakoa aukera paregabea da”. Kirol teknikariak gaineratu du Sakanako Herri Lasterketarekin “gure herriak, gure kultura eta euskara bulkatu” nahi direla, eta horregatik “lasterketa urtero herri ezberdin batean” antolatzen dutela, Sakanako herri ezberdinak erakusteko, eta euskarriaren euskararen presentzia sustatzen dutela.

AURTEN ORDU BAT AURRERATU DITUZTE PROBAK: HAURRAK 16:00ETAN ETA HELDUAK 17:00ETAN

Ongi etorri errefuxiatuak

Aurreko urteari jarraiki, lelo hori izango du Sakanako Herri Lasterketa-Burundesa Sari Nagusiak. Izan ere, Sakanakoa ez da lasterketa arrunta izanen. «Lasterketa herrikoi bat antolatzea da xedea, baina kirol, kultur eta izaera soziala izango duena, kasu honetan errefuxiatuen aldekoa. Sakanako herri lasterketan gurean dauden beste sentsibilizazio batzuk zabalteko aprobetxatu nahi dugu, kasu honetan errefuxiatuen eta etorkinen gaia. Horregatik gehitu diogu lelo hori lasterketari» azaldu dute antolatzaileek. Horrela, lasterketa nagusia hasiarekin batera, “Errefuxiatuen Aldeko Martxa, Ongi etorri errefuxiatuak” abiatuko da, 2,5 km-ko oinezko martxa.

Arratsalde guztian, errefuxiatuen gaia lantzeko Sakana Harrera Haranaren eta HELPNA taldearen, Larrialdi Humanitarioetarako Nafarroako Suhiltzaile Bolondresen taldearen

inguruko informazioa jaso ahal izango da Olaztin jarriko diren postuetan. Azken hauek Greziako errefuxiatuen kanpamenduetan lan handia egiten dute. Bi elkarte hauen informazioa jasotzeaz gain, Serbiako eta Greziako errefuxiatuen errealitatea eta bizipenak zuzenean ikusi eta entzuteko aukera izango da.

Arratsalde osoko egitaraua antolatu dute, eta, horrela, arratsaldeko 16:00etan kategoriatxikikoen lasterketak hasi baino lehen, 15:30ean magia ikuskizuna eskainiko du Maksim Magoak.

Haurrak 16:00etan eta helduak 17:00etan, martxarekin batera

Aurten Sakanako Mankomunitateak ordu bat aurreratu ditu probak, lasterketak ilundu baino lehen amaitzeko. Horrela, Sakanako Herri Lasterketako kategoriatxikiko probak 16:00etan hasiko dira. Aurrebenjaminak (200 m), benjaminak (400 m), kimuak (800 m) eta haurrak (1200 m) ariko dira, hurrenez hurren.

Kadeteak, aldiz, helduekin batera ariko dira, 17:00etatik aurrera hasiko den nagusien proban, eta Olaztiko kaleetan barna prestatutako zirkuituari bi buelta emango dizkiote (5 km). Aldiz, gazteek, seniorrek eta beteranoek hiru buelta emango dizkiote zirkuituari (7,5 km). Jakina denez, lasterketa Sakanako Kopa-Lasa Kirolak Sarirako baliagarria izango da.

Lasterketa nagusiarekin batera, Errefuxiatuen Aldeko Martxa abiatuko da, oinezkoa. Kasu honetan, Olaztin prestatutako zirkuituari buelta bat eman beharko diote izena ematen dutenek, 2,5 km osatuz. Ekimen irekia da eta nahi duten orok har dezakete parte, doan.

Ez da euririk aurreikusten

Mank-ek 100 neska-mutiko eta 80 heldu ingururen parte-hartzea espero du, baina gainontzeko probetan bezala, eguraldiak aginduko du. Printzipioz, eguraldi iragarpenetan ez da euririk aurreikusten. Aurreko urtean, Uharte Arakilen, proba nagusian 91 korrikalarik hartu zuten irteera eta 75ek lortu zuten proba despeditzea, 38 sakandarrek tartean. Irungo Victor Madejon eta Cabanillasko Aitana Gil gailendu ziren. Errefuxiatuen Oinezko Martxa egitera, aldiz, 20 pertsona inguru animatu ziren.

Izena ematea zabalik

Edonork parte har dezake Sakanako Herri Lasterketan, proba irekia da, baina Mank-etik sakandarrak animatu nahi dituzte bereziki, eta emakumeei ere deialdia egin diete. Izena ematea aurretik www.kirolprobak.com web gunean egin daiteke, gaur, ostiralean, 21:00ak arte, eta bestela bihar, probako egunean bertan, 15:00etatik 16:30era, Olaztiko pilotalekuan. (Kategoria txikikoen, kadeteak eta gazteak barne eta Errefuxiatuen Aldeko Martxakoek dohain dute parte-hartzea; nagusiek, aldiz, 10 euro ordaindu beharko dituzte txip horia badute eta 11 euro alokairudun txip txuria behar dutenek). Argibide gehiagorako Mank-eko kirol zerbitzura jo daitek (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.eus).

Sari ematea

Sari ematea 18:00ak aldera izango da. Sakanako Herri Lasterketako lehenengo hirurek eta lehenengo hiru sakandarrek, gizonetako eta emakumetako, saria izanen dute, bertako produktuak. Horretaz gain, lehe-

Olaztiko egitaraua

- **15:00** Dorsalak jaso.
- **15:30** Magia ikuskizuna Maksim Magoarekin, plazan.
- **16:00** Kategoriatxikikoen lasterketak.
- **17:00** Helduen lasterketa eta Errefuxiatuen Aldeko Martxa.
- **18:00** Helduen sari banaketa, auzate berezia eta henna margoketa Minaren eskutik.
- **Arratsaldean zehar:** Serbia eta Greziako errefuxiatuen argazkiak eta haien testigantzak

nengo kadeteek, jubenilek eta beteranoek, azken hauek hiru mailatan, saria jasoko dute ere, eta Olaztiko lehenengo korrikalariendako ere saria egongo da. Bestalde, lasterketa bukatzen duten partaide guztien artean, Peio Goikoetxea masajistaren masajeak zozketatuko dira, herriko produktuak, partxis kolaboratiboa eta HELPNaren eta Sakana Harrera Haranaren kamisetak. Eta oinezko martxan parte hartzen dutenen artean bi pertsonendako bazkari edo afaria zozketatuko da.

Auzate berezia

Bukaeran, bildutako guztiendako auzate berezia izango da. Ohiko bertako jakiez gain, gurrera bizitzera etorri diren jatorri ezberdinetako sakandarrek euren jaki tipikoak prestatuko dituzte.



Euripean baino gustura ibili ziren Onddo Lasterketan aritu zirenak.

Aurtengo Altsasuko ferietakoa, Onddo Lasterketa bustia

ATLETISMOA Dantzaleku Sakana klubak antolatutako lasterketa eta martxan 167 partaide aritu ziren guztira

Eguraldiak ez zuen batere lagundu, baina hala ere guztira 167 partaide animatu ziren Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak hainbat babesleren laguntzarekin Altsasuko ferietako larunbat goizean antolatutako 39. Eskolarteko Krosean eta Onddo Lasterketan parte hartzerantz. Horietatik 31 kategoriatxikiko lasterketan aritu ziren, 50 Oinezko Onddo Martxan, eta gainontzeko 86ak Onddo Lasterketan. Aurreko urtean guztira 428 partaide izan zituen probak, baina eguraldi kaxkarraren eraginez aurten parte-hartzea erdia baino gehiago jaitsi zen.

Onddo lasterketa eta Eskolarteko Krosa proba ez lehiakorrek dira; atletismoa eta kirola sustatuz goiza ederra pasatzea da helburua, onddoak ateratzen diren paraje zoragarrietan, lagunartean eta inolako lehiakortasunik gabe goiza bikaina pasatzea. Horrela, antolakuntzak ez ditu denborak hartzen ezta sailkapenik egiten.

Eskolarteko krosa, hasteko

Goiztiarrenak txikienak izan ziren. Goizeko 11:00etan ekin zioten 39. Eskolarteko Krosari Altsasuko Foru Plazaren inguruetan; aurrebenjaminetan, benjaminetan, kimuetan eta haurren lasterketan, guztira 31 neska-mutiko aritu ziren korrika. Zuku goxoa eta mokadutxoa zuten zain bukaeran. Segidan, 11:30ean, Oinezkoen Onddo Martxan parte hartu zuten 50 oinezkoak abiatu ziren, eta ordu

erdi beranduago, 12:00etan, Onddo Lasterketa osatu zuten 86 korrikalariak. Oinezkoak eta korrikalariak eremu beretan aritu ziren, baina ibilbide ezberdina egin zuten, elkarren artean traba ez egiteko. Plazatik aterata, Basoitxi, San Pedro eta beste hainbat txokotik ibili ziren, onddo artean.

Josefina Arregiri laguntza

Oinezkoen martxan eta Onddo lasterketan parte hartu zutenek 5 euro ordaindu zituzten izena ematearen truke. Dantzaleku Sakanatik adierazi digute sarre-rako 5 euro horietatik 2 Josefina Arregi Klinikara bideratu zituztela, klinika laguntzeko.

3 onddo saski

Bukaeran parte-hartzaileen artean 3 onddo saski zozketatu zituen Dantzaleku Sakanak, eta Orkoien Mikel Gurpegi, Altsasuko Marina Arévalo eta Etxarri Aranazko Edurne Razkin izan ziren onddo saskiarekin etxera poz-pezik joan zirenak. Eta aipatzekoa da ere aurten, nobedade moduan, kamiseta beharrez, izena eman zutenek erosketak egiteko poltsa bat jaso zutela, txiki-txiki biltzen diren horietakoa.

IZENA EMATEGATIK ORDAINDUTAKO BOST EUROETATIK BI JOSEFINA ARREGIRI EMAN ZIOTEN



Sakanako Herri Lasterketa Uharte Arakilen jokatu zen aurreko urtean. Irudian, irteera.



Etxarri Aranatzen jokatu zen XII. Uharteko Rollerski Sarian parte hartu zutenetako batzuk, helmugara iristen.

Lannes eta Etxeberria azkarrenak rollerskian

ROLLERSKIA XII. Uharteko Rollerski Saria jokatu zen larunbatean Etxarri Aranatzen. Helduen mailako proban (9,8 km) 43 rollerskilarik osatu zuten proba eta 14 urtetik beherakoan (2,8 km) 14 rollerskilarik

Etxarri Aranatz eskiatzaileen eta rollerskilarien topaleku izan zen larunbatean. Uharteko Ipar Eski taldeak eta Irrintzi Ski taldeak antolatuta, XII. Uharteko Rollerski Saria jokatu zen, Euskal Herriko Rollerski Ligarako baligarria zen proba. Etxarri Aranatzko Udalararen eta Sakana Mankomunitatearen laguntza izan zuten antolatzaileek, eta hainbat entitate eta komertzioen babesa.

Rollerskia elurra ez dagoenean eskia lantzeko modalitate gisa sortu zen, entrenatzeko, teknika hartzeko eta baita eskian ikasteko ere bai. Baina hasieran entrenamendu hutsa izateko jaio zen modalitatea hazi egin da eta egun makina bat eskiatzaile aritzen dira rollerski probetan.

Bernar Garziandia 17.a

Etxarri Aranatzko proba rollerski klasikoa izan zen. Klasikoan, rollerskiko gurrupilak ez dira atzeraka mugitzen, soilik aurre-

ra, eta eskiatzen bezala doaz kirolariak, rollerskiak paralelo dituztela. Eguraldia nahiko kaxkarra izan zen, baina hala ere guztira 57 rollerskilarik osatu zuten proba eta hainbat sakanadar gerturatu ziren momentuz hemen oso ohikoa ez den kirola gertutik ezagutzera. Horietatik 43 helduen proban aritu ziren (9,8 km). Lizarragabengoatik atera ziren, denak batera (Mass Start irteera) eta Berroetako bidetik Etxarri Aranatzera iritsi ziren. Han, Bakaikurantz jo zuten, eta gasolindegiko ondoko errotondan buelta hartuz, Etxarriko sarrerako errotondora jo zuten. Errotondatik errotondora bitarteko zirkuituari bi buelta eman eta gero, Etxarriko

OLGA GARZIANDIAK EZIN IZAN ZUEN ARITU ITALIAN KONTZENTRATUTA DAGOELAKO

sarrerako errotondan izan zuten helmuga. Gizonezkoetan Carlos Lannes izan zen azkarrena (23:50), Unai Sanz (23:51) eta Josu Erkiñia (23:52) rollerskilarien aurretik. Aipatzekoa da Bernar Garziandia etxarriarra 17.a sailkatu zela (33:08). Emakumezkoetan, aldiz, Hernar Etxeberria gailendu zen (28:49), Naia Saez (29:55) eta Elisa Hernandez (30:33) kirolarien aurretik. Etxarri Aranatzko Olga Garziandiak ezin izan zuten aritu, Jakako teknifikazio taldearekin Italian kontzentratuta zegoelako.



Rollerskiak, gertutik.

CBASK-ek ekin dio Autonomia Arteko 2. Mailako Ligari

SASKIBALOIA Aurreko urtean Final Fourra irabazi eta mailaz igo zen CBASK. Maila berria laugarrena da

CBASK Altsasuko Saskibaloi Taldeak lorpen handia lortu zuen aurreko denboraldian. Nafarroako Senio Gizonezkoen 1. Maila Autonomikoko Final Fourra jokatzeko sailkatu zen talde altsasuarra, liga erregularrean soilik partida bakarra galdu eta gero. Zelandi kiroldegian jokatutako Final Four ikusgarrian azkenean talde faboritua gailendu zen: CBASK. Altsasuarrek 65 eta 46 irabazi zieten Oberena taldekoei. Horrela, liga irabazteaz gain, Nafarroako eta Errioxako taldeek osatzen duten Autonomien Arteko 2. Mailako Ligara igotzea lortu zuen CBASK-ek.

Autonomien Arteko 2. Mailako Ligako lau jardunaldi jokatu ditu dagoeneko CBASK-ek. Bi partida irabazi eta beste bi galdu ditu. Larunbatean, esaterako, etxean jokatutako partidaren CBASK-ek 80 eta 78 hartu zuen menpean Errioxako CB Cenice-ro La Alcohola taldea. CB Sanignacio Rioja da liderra (7 puntu) eta CBASK laugarrena da (6 puntu). Bihar, larunbatean, hain zuzen ere, Sanignacio Rioja liderra hartuko du CBASKek Zelandin, 18:00etan. Sailkapenean gora egiteko aukera ederra.



CBASK, aurreko denboraldian.

Nafarroako seniorren maila autonomikoa

Nafarroako Senior Gizonezkoen 1. Maila Autonomikoan aurten estreinatuta den CBASK taldeak, aldiz, ez du denboraldia ongi hasi. Lau jardunaldi jokatu dira eta CBASK-ek ez du lortu partidarik irabaztea. Aurreko ostiralean, Oberenak 85 eta 60 irabazi zion CBASK taldeari. Basket Navarra da liderra (8 puntu) eta CBASK azkena da, 14.a (4 puntu). Bihar, larunbatean, 16:00etan, CBASK taldeak CBSA El Navarrico taldea hartuko du Zelandin.



UTZITAKOIA

12.000 minbiziaren aurka

ATLETISMOA Urriko azken igandean, urriaren 28an, Saray elkarteak bularreko minbiziaren kontrako lasterketa herrikoia eta oinezko ibilbide herrikoia antolatu zituen Iruñean (5 km). Errekorrak apurtuz, 12.000 pertsonak arrosaz tindatu zituzten hiriburuko kaleak. Tartean makina bat sakanadarrek hartu zuten parte proba ez lehiakorrean.



Garcia de Eulate, Ibizan. SAKANA T.T.

Gorka Garcia de Eulate Ibizako triatloian ongi

TRIATLOIA Bere adin tartean (35-39 urte) hamargarrena sailkatu zen altsasuarra

Larunbatean Europako Txapelketarako eta Espainiako Triatloi Koparako baligarria den distantzia erdiko triatloi proba jokatu zen Ibizan (1,9 km igerian, 90 km bizikletan eta 21 km korrikan). Bertan lehiatu zen Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate Maya.

Ekaitzengatik ibilbidea murriztu Eguraldia oso kaxkarra izan zen, eta ekaitzen ondorioz zenbait errepide urez gainezka geratu ziren. Horrela, bizikleta sektoreko 90 km-ak 45era murriztu behar izan zituen antolakuntzak, eta horrek triatleta altsasuarra kaltetu zuen, hori baita bere espezialitateetako bat.

Nolanahi ere, oso ongi aritu zen Garcia de Eulate. Proban parte hartu zuten 526 triatleten artean 174.a sailkatu zen (3:22:58), bere adin tartean, 35-39 urteen artean, 10.a.

Behin betiko sailkapena faltan Espainiako Triatloi Federazioak azaldu du denbora guztiak ongi errebisatu behar dituela Espainiako Triatloi Kopako behin betiko sailkapena emateko. Sailkapen horretan bere adin tartean aurreneko postuetan zegoen Garcia de Eulate. Ea, azkenean, zein postutan sailkatzen den.



Emakumezkoen erregional mailan dabilen Altsasu taldea, Castellano eta Cantero entrenatzaileekin.

Altsasu: emakumeen futbol taldeak sendotzen

FUTBOLA Emakumezkoen erregional mailako taldea 18 talderen artean 9.a da sailkapenean eta Futbol 8 mailan dabilen taldeak gogotsu ekin dio denboraldiari. Hurrengo denboraldirako kadete-haurren taldea sortu nahiko lukete

Sociedad Deportiva Alsasuak (SDA) emakumezkoen futboleko bi talde ditu. Lehen taldea Emakumezkoen Erregional mailan aritzen da, eta bigarrena Nafar Kirol Jolasetako Emakumezkoen Futbol 8 Txapelketako 2. multzoan. SDA-ko futbol koordinatzaile eta aldi berean Altsasu emakumezkoen erregional mailako entrenatzailea den Alfonso Castellano adierazi digunez, "emakumezkoen futbola gora doa eta hazkuntza ez da gelditzen. Horregatik oso kontentu gaude eta emakumezkoen futbola sustatzen jarraituko dugu SDA klubetik. Egun emakume futbolari sakandarren erreferente gara eta futboleko aritu nahi duten emakume guztiak ongi etorriak dira gurean" adierazi digu Altsasuko futbol koordinatzaileak.

Gogotsu eta lehiaketako gosearekin

Emakumezkoen Erregional mailan 18 talde aritzen dira eta

tartean dago Altsasu. Osasuna B, Mulier B, Orkoiengo Kirol Sport eta Barañaingo Lagunak dira, akaso, koxka bat gorago dauden taldeak, eta gainontzeko taldeak antzeko mailan daudela aipatu du Castellano. "Aurreko urtean mailari tamaina hartzen ibili ginen eta aurten hobe ari gara. Iazko bloke guztia mantendu dugu eta soilik jokalaritari bat, Maialen Ijurrak da berria. 24 jokalaritari entrenatzen ditugu Ane Canterok eta biok. Aurten, taldeari beste jarrera bat ikusten diot, zelaian hobe ari da eta lehiaketako gosea du" nabarmendu du euren entrenatzaileak. Horren erakusle, erregionalari ongi ekin dio Altsasuk. 8 jardunaldi jokatu, 3 partida irabazi ditu, bat berdindu eta 4 galdu. Osasuna da liderra (24 puntu) eta Altsasu 10.a da (10 puntu), 18 talderen artean.

Nafar Kirol Jolasetako Emakumezkoen Futbol 8 taldean 13 jokalaritari dabilta. "Futbolari gehiago beharko genituzke, tal-

dea sendo egoteko. Oso animatuak dira eta gogo askorekin entrenatzen dute. June Leza eta Irati Igoa dira entrenatzaileak eta kontentu daude. Aurreko urtean euren adina baino askoz gehiago zuten nesken kontra ibiltzea tokatu zitzaizen, baina aurten erregionalaren eta Futbol 8 mailen artean kategoria berria sortu dutenez, Emakumezkoen Kadete-Haur maila, euren adinen

kontrako nesken kontra ariko dira eta hobe ibiliko dira" aipatu digu Castellano. Altsasurkin batera, Lagunak, Amaya, Mulier, Peña Sport eta Burlades lehiatuko dira Nafar Kirol Jolasetan. Emakumezkoen Futbol 8ko 2. multzoan.

Kadeteen-haurren taldea sortu

Emakumezkoen taldeak sendotu eta harrobia sortzea, hori da SDA-ren helburua. "Egun ditugun emakumezkoen bi taldeak indartu nahi ditugu, harrobia sustatu eta, posible balitz, bi kategorien artean sortu duten kategoria berri horretarako, Emakumezkoen Kadete-Haur mailarako talde berria sortu nahiko genuke, Altsasu klubaren hirugarren emakumezkoen taldea izango litzatekeena. Horrela, Futbol 8 kategoriatik kadete eta haur mailako taldera pasako lirateke gure futbolariak, behar bezala trebatu eta Erregionalera berme guztiarekin pasatzeko" ondorioztatu du Castellano.

Erregionala

Atezainak: Izaskun Ruiz de Eguino, Maider Granizo eta Zaida Martinez

Atzelariak: Maalen Beraza, Saioa Sayas, Maite Sanchez, Maialen Ijurrak, Nerea Arellano, Janire Lopez, Garazi Martinez eta June Leza

Erdilariak: Amets Oteiza, Ainhoa Agirre, Udane Vergara, Ane Lizarraga, Sandra Gasco, Sonia Alonso, Aintzira Arretxe, June Alzelai eta Beatriz Teixeira.

Aurrelariak: Alicia Elizalde, Ekiñe Razkin, June Garcia de Albeniz, Maddi Mariñelarena, Jone Grados

Entrenatzaileak: Alfonso Castellano eta Ane Cantero



Futbol 8 mailan dabilen Altsasu taldea.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 2

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ALTSASU Euskaraldia prestatzeko batzar irekia. 19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU *Ha nacido una estrella* filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.

OLAZTI Julivert abeslariaren kontzertua. 23:00etan, Barandi tabernan.

LARUNBATA 3

OLAZTI Argazkilaritza tailerra

basoan. Nafarroako Gobernuak antolatuta. Izena ematea: 626774891 (Iker) edo talleres@navarradefoto.com. 10:30etan, Urbasa-Andia parke naturalean.



ETXARRI ARANATZ Martinaren parke fantastikoa familiarteko ikuskizuna euskaraz. 17:30etan, kultur etxean.

ALTSASU Utzi Altsasu bakean manifestazioa. 17:30etan, Foru plazan.

IRURTZUN Folk ametsen musika zikloa: De mar en mar taldearen *Musicas del Mediterraneo al Pacifico* emanaldia. 19:00etan, kultur etxean.

IGANDEA 4

ALTSASU Ibilbidea Santanderren

eginen dute Barranka Txirindulari Taldeko mendi atalekoek. 07:00etan, Zumalakarregi plazatik.

ALTSASU *Mila bira mila kolore faxismoaren kontra ekimena*. 10:00etatik aurrera, hilerrian.

ALTSASU Eskubide eta askatasunen gunea. Utzi Altsasu bakean herri batzarraren ekimena. 10:00etatik aurrera, lortia zabalgunean.

ALTSASU España Ciudadanaren ekitaldia Albert Riverarekin. 11:30etan, Foru plazan.

UHARTE ARAKIL Iruñeko San Francisco de Asis abesbatzaren kontzertua. 12:00etan, Aralarko santutegian.

IZURDIAGA Haurren eguna. 17:00etatik aurrera, elkartean.

IRURTZUN Folk ametsen musika zikloa: Olatz Zugastiren *Ur goiena ur barrena* emanaldia. 19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU *Ha nacido una estrella*



ALTSASU Altsasuko VII. Arte Azoka. Urriaren 19tik azaroaren 6ra arte. Asteleheneetatik ostiraletara 18:30etik 21:00etara, larunbatetan 18:30etik aurrera eta igandetan 16:00etatik 20:30era.



filmaren emanaldia. 19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 5

ALTSASU Pentsio duinen alde.

Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea. 19:30etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 6

ALTSASU Oscar Gallardo idazlearen *Un tejado a dos aguas* liburuaren aurkezpena Arkatz liburudendaren eskutik. 19:00etan, Haritza tabernan.

ASTEAZKENA 7

ARBIZU Udazkeneko km-0 sukaldaritza tailerrak. Euskal txerri haragiarekin bazkari/afari menuak. Ismael Alegria sukaldariarekin eta Ana Carmen Huarte dietista nutrizionistarekin. Izena emateko: nviana@akanagaratzen.com edo 672688591. 19:00etan, Argi-Bidea elkartean.

OSTEGUNA 8

ALTSASU *Ha nacido una estrella* filmaren emanaldia. 19:30etan, lortia kultur gunean.

ZORION AGURRAK



Ibai Galarza Zubiria
Gaur 9 urte betetzen dituzu! Zorionak familia guztiaren partez!! Segi beti bezain irrifartsu!!



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua
info@dekovennavarra.com - www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860

IRAGARKI SAILKATUAK

IKASTAROK

AUTOEZAGUTZA

Zure burua hobeto ezagutu nahi duzu? Norberaren ezagutzaren sakontzea pertsona bakoitzaren Gizarte Estiloa aztertuz. Azaroaren 6, 13, 20 eta 27 asteartean. 11:00etatik 12:00etara. Balioa 50 euro. Izen ematea: A.S.I Arreta eta Orientazio Psikologikoko Zentroan, Isidoro Melerro, 18 behe Altsasu, edo 669 367 422 tfnoan.

MUSIKA

Instrumentu bat jotzen ikasi nahi duzu? Egin proba baxuarekin! Ez da beharrezkoa musika ikasketak izatea, gogoia bakarrik. Adin guztiendako. Luisillo 617 723 297

LEHIAKETAK

GAZTEWOOD. Altsasuko gaztebaxaren III. Film laburren txapelketa. Gehienez 15 minutu. Lanak MP4 formatuan, DVDan edo pendrivean aurkeztu behar dira 2019ko martxoaren 19a baino lehen. Informazio gehiagorako gazteewood@gmail.com edo sare sozialetan gazteewood profilean.

OHARRAK

Altsasuko gaztebaxotik jakinarazi dutenez, hainbat ekintzetan plaza libreak daude: Fortnite txapelketa (larunbatean, doan), lanerako gaitasun pertsonalak (azaroak 10 eta 24, 15 euro), munduko sukaldaritzak (azaroak

27, 30 euro 3 hilabete) eta aerodantz (lastailaren 5etik garagarriaren 14ra arte, 10 euro hilabete). Izen ematea 948 564 785 edo 608 617 778 telefono zenbakietara hots eginez edo inxostiapunta@altsasu.net e-postara idatziz.

Iztaletik argira eguna Etxarri Aranatzan. Azaroaren 10ean ospatuko da. Bazkarirako txartelak Xapateron eta Leku Onan eskura daitezke.

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2 1 0 0 2 1 7 3 8 7 0200346965

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cedema-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sendotzea. Argibide gehiago: 948 5670 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagun- du zabaltzen eta finantzatu-

zen: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Pabi) telefonotara hots egin dezatela

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosejosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosejosefinaarreguilagunak.blogspot.com

OPATUTAKOAK/
GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK

ERLOJUA ALTSASUN. Esferaren atzeko aldean MR hizkiak eta 22-6-53 eta 22-6-78 datak ditu idatziak. Longines markakoa. Galdu duenak Guaixe astekarira hots egin dezala, 948 564 275

Altsasuko

Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroko, poltsak eta nezeserrak: 31. Audi-fonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Oihan Lazkoz Lumberras,** urriaren 23an Altsasun
- **Arai Chao Jaka,** urriaren 24an Etxarri Aranatzan

HERIOTZAK


- **Concepción Sanchez Duarte,** urriaren 25ean Altsasun
- **Maria Jesus Otxoarrarte Valencia,** urriaren 26an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.




EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 2




Fronte berri bat sartuko zaigu eta euria izango dugu egun guztian zehar. Noizbehinka gainera, zaparrada mardulak bota ditzake.

Igandea, 4




Eguzkia ager daiteke eguneko momentu batzuetan eta horrek tenperatura igoko du, baina goizaldean hotz handia izango da gurean.

Larunbata, 3



Larunbatean eguraldiak hobera egingo du arratsaldean. Ostertean irekiko dira, bereziki iluntze aldera eta gauean hotz egingo du.

Astelehena, 5



Okerrera egingo du eguraldiak berriro. Tenperaturek ez dute hainbesteko beherakadarik izango, baina euria izango dugu egun guztian zehar.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€/130,68€ prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek %10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.



Nabarmendu zure iragarkia

Modulo handia:
24,20 €
948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:
14,52 €
948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarki Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

tanatorioak
IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Olatz Zugasti abeslariak azaroaren 4an Irurtzunen emanaldia eginen du. UTZITAKOA

Folk musikak eragindako bi udazken gauetako ametsak

Irurtzango 'Folk ametsetan' zikloa izanen da asteburuan. Bihar eta etzi, 19:00etan, eginen dira emanaldiak

IRURTZUN

Folk ametsetan zikloa duela 26 urte antolatzen dute Irurtzunen. Hortaz, oso errotuta dagoen musika zikloa da, eta, beste udazken batez folk musikarekin duten zita errepikatuko dute. Bi talde arituko dira: bihar, larunbata, azaroaren 3an, De mar en mar taldearen emanaldia izanen da eta etzi, azaroaren 4an, igandea, Olatz Zugasti abeslaria izanen da. Bi emanaldiak 19:00etan izanen dira, kultur etxean.

Folk musikaren zikloa Baztango eta Irurtzango udaletako kultur zerbitzuek antolatzen dute. 2016 urtera arte Baztango, Lekunberriko, Irurtzango, Castejongo eta San Adriango udalek antolatzen zuten Mankomunitateko Programak diru-laguntzari esker. Orduetik, Baztanen eta Irurtzunen egiten dute *Folk ametsetan* musiko zikloa. Zirkuitu komertzialetan oso ezagunak ez diren kalitate handiko folk taldeen lana hedatzea eta bultzatzea da zikloaren helburuetako bat, Irurtzango kultur zerbitzutik azaldu dutenez. Gainera, "topagunerako leku dibertigarri eta atsegina sortzea" ere aurreikusten du zikloak.

Zikloa

Azaroaren 3an hasiko da, beraz, Irurtzango *Folk ametsetan* zikloa. De mar en mar taldeak emanen dio hasiera. Itsasarteko doinuak proposatzen ditu flamenkoa oinarri duen taldeak. Haren azken lana, hain zuzen, *Mediterraneotik Pazifikora musikak* deitzen

da eta 2016an kaleratu zuten. Gitarra flamenkoa, laud arabiarra, akordeoia, perkusioa, ney-a eta ahotsa dira musika bidezko bidai trasantlantikoa egiteko erabiltzen dituzten tresnak. Kulturak batzen dituen proiektua dela diote taldekideek.

Haien errepertorioa osatzeko abesti anonimoen, kantautoreen, herri musikaren edota folklore musikaren kantak moldatu dituzte taldearen sena mantenduz: kulturartekotasuna musikaren bidez erakutsi. Abestien artean ere pozgarriak edota melankolikoak daude. Blanca Paloma, Wafir Cibril, Vicente Molino eta Victor Muñiz dira taldekideak.

Iganderako, azaroaren 4rako, euskal folk musika izanen da Irurtzango kultur etxeko agertokian. Izan ere, talde euskaldunen kreatibitatea bultzatzea da folk ametsetan zikloaren xedeetako bat, "gure kulturaren eta sustraien" isla direlako, Irurtzango kultur zerbitzuak azaldu duenez. Hortaz, Olatz Zugastik *Ur goiena Ur barrena* lana aurkeztuko du. Zugastiren lan berri hau pertsonalagoa da. Abesti gehienak berak idatzi, konposatu eta moldatu ditu. Herriarekiko sortutako kezkek plazaratzen ditu abestien bidez. Harpa izanen du lagun, eta bikote formatuko emanaldia eskainiko du Irurtzunen.

Zikloaren emanaldi bakoitzaren sarreraren prezioa 5 eurokoa da eta kultur etxean aurretik eta egunean eros daitezke.



Altsasuko baso itxia udazkenean.

Nafarroako udazkenaren koloreak harrapatuz

Nafarroako I. Argazki Rallya antolatu du Turismo eta Merkataritza Zuzendari Nagusiak

SAKANA

Nafarroako udazkenak hamaika unetxo sortzen ditu eta Nafarroako Turismo eta Merkataritza Zuzendari Nagusiak une horiek kameraren bidez hartzea eta erakustea nahi du. Nafarroako I. Argazki Rallya antolatu du. Lehiaketan parte hartzeko epea azaroaren 20an amaitzen da. Bi kategoria daude: orokorra eta Instagram.

Basoak eta mahastiak kanpainaren barruan antolatu dute argazki rallya eta helburua "bisitariak eta turistak" animatzea da. Bi kategoria daude: orokorra eta Instagram. Argazkiak derri gorrez Nafarroan 2018ko udazkenean eginak izan behar dira. Kategoria orokorrean parte hartzeko Nafarroako basoetan edo mahastietan urriaren 20tik azaroaren 20ra argazki bat atera behar da eta *navarradefoto.com* webgunean igo eta izena eman. Saria Nafarroako landa etxe batean bi eguneko egonaldia da. Bestetik, Instagram sailean parte hartzeko, sare sozial honetan argazkia jartzean *@turismonavarra* etiketatu behar da eta *#navarradefoto* traola erabili. Gainera, webgunean ere izena eman behar da. Bihar argazkilaritza ikastaroa basoan eginen dute Urbasan.



BAZTERRETIK

KATRIN GINEA

Koloreak, emakumea, inklusibitatea eta enpoderamendua



Aurreko batean, uda honetako egun eguzkitsu horietako batean, hondartzan etzanda eta musika entzuten nengoela abesti eder bat deskubritu nuen. Spotify entzuten nengoela bat batean Juanesen *Pa dentro* abestia saltatu zen, ez galdetu nola.

Sarritan pasatzen zait, bat batean abesti bat entzun, barreneraino sartu, eta hortik aurrera artista berri bat dut nire playlistean, edo abesti bat kasu honetan bezala.

Juanes ez da nire abeslari gogokoa, esan beharra daukat, sarritan entzun dut, baina tabernetan parrandatan gehienetan, baina oraingoan abesti honek maitemindu ninduen. Abestia entzun eta... benetan emakumearen plazerraren inguruan ari da abestia? Youtube... bideoklipa ikusi beharra daukat, eta hara

ze sorpresa! Abestia baino gehiago gustatzen zait orain bideoklipa! Medellingo kaleetan grabatutako bideoklip koloretsua.

Greg eta Lio frantsesek zuzendutako bideoklipa bisualki marabilla bat da. Juanesek sortu berri duen abestia poesia urbanoa bezala katalogatu dute, eta bideoklipa ere poesia bat da. Sinbologiaz beteriko bideoklipa. Emakumearen askatasuna, plazerra, emakumearen edertasuna eta enpoderamendua. Planoan ederki jarritako elementuekin sortutako koadro sorta ederra.

Baina bideokliparen politena inklusibitatea eta dibertsitatearen azalpena da. Mota guztiako emakumeak.

Bideoklipa ikusi ahal izateko: <https://youtu.be/VhQmTmqcEY0>



NEREA BALDA

Irurtzango Gau beltza

Domu Sainduen egunaren inguruan, azaroaren 1ean, ospatzen zen Gau beltza edo Arimen gaua Euskal Herrian Halloween iritsi aurretik. Irurtzunen misteriozko ipuin kontakizunekin ospatu zuten Gau beltza urriaren 31n. Izaskun Mujika aktorea izan zen ipuin kontalaria. Ondoren, kalera atera ziren goxoki eske garai batean egin bezala.

"Gazteen kontaketa gerturatze bat da"

JOSEBA SALEGI ZINEMAGILEA

Joseba Salegi altsasuarrak 'en el Laberinto de los Dioses' film laburra aurkeztu du Arte Azokan. Altsasuko auziari buruzko kontakizun "kontzeptuala" egin du

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Altsasuko auziari eta herriko gazteen espetxeratzeari buruz asko esan da. Baina Joseba Salegi zinemagileak gazteen bertsioa gutxitan azaldu dela esan du. Hortaz, *en el Laberinto de los Dioses* film laburrean gertatukoaren "gertu" egon daitekeen kontakizuna egin du. Altsasuko Arte Azokan mustu zuen eta azaroaren 6ra arte ikus daiteke Iortia kultur gunean. Film laburrak 4 minutu eta 15 segundoko iraupena du.

En el Laberinto de los Dioses film laburra egin duzu. Zergatik?

Proiektu honekin duela urte bat baino gehiago hasi nintzen. Atxilotutako gazteen ama batek esan zidan herriko artistek zer bait egin behar genuela eta ideia horri buelta asko eman nizkion. Hasieran testu literario bat egin nuen gertakarien narrazioa egiteko, gertatuko hobe transmititzeko, urte bateko lana behar izan dut. Arte Azokaren harira Helena Santanok esan zidan zer bait prestatzeko, eta denborarik ez dudanez, testua ikus-entzunezkoa bihurtzea erabaki nuen.

Zu zara egilea eta aktorea.

Aktore gazteak bilatu nituen, baina lotsa ematen zien. Konturatu nintzen aktore berak bi pertsonaiak egiten bazituen kontzeptu literarioa askoz gehiago azaleratzen zela. Aktoreak kontratatzeak aukerarik ez nuen, nik eginen nuela erabaki nuen. Idazten dudanean ohar asko jartzen ditut, eta nik egin dudanez banekien zer adierazi nahi nuen une bakoitzean, hau da, testua oso barneratuta nuen, banekien zer azaleratu nahi nuen. Testuak, beraz, garrantzia hartzen du. Hori bai, oso aktore txarra naiz.

Altsasuri buruz asko esan da. Zertan desberdintzen da film laburra?

Niretako kontakizun guztietan gazteen kontaketa falta da. Ez



Joseba Salegi zinemagile altsasuarra Arte Azokan.

"ALTSASU HITZA EZ DA BEHIN ERE AGERTZEN. OSO KONTZEPTUALA DA, METAFORA BAT"

dakigu gau horretan zer gertatu zen gazteen begiradatik. Ez dut esan nahi nik film laburrean esaten dudana egia dela, ez nintzelako han egon. Irudikatu dezaket gertaerak horrela izan zirela. Kontakizun hau gazteen kontaketa gerturatze bat dela esan dezakegu. Hau ez da egi osoa izan, baina gertatutakoaz gertuago dagoela uste dut.

Antzinako Grezian oinarritu zara. Zergatik?

Gure kultura nagusiaren oinarria delako eta oraindik jokatzen dugulako Greziako tragediaren baldintzen arabera. Greziako kulturaz hitz egitean aurreiritzi guztiak joaten dira: gerlaria gerlaria da eta momotxorroa momotxorroa. Ez dago besterik. Mezua argia da.

Tragedia jakin batean oinarritu zara? Ez. Kultura barruraino sartu zaigu; Greziako kultura barne-

ratuta dugu. Concha Rodriguez Rozaren laguntza izan dut Antzinako Greziari buruz hitz egiteko, gehien bat terminologia-rekin laguntzeko. Esaterako *metropolis* jarri behar nuen, eta esan zidan Altsasu gehienez *polis* bat dela. Hortaz, *polis* herria da.

Metafora bat da.

Ez nuen nahi Altsasu hitza agertzea. Implizituki agertzen da bakarrik. Gertaeren kontakizun zuzena ere ez da egiten. Oso kontzeptuala da. Esaterako, jainko faltsuak hedabideak eta Covite dira eta *polis*-aren kontrako gorrotoa hedatzen dute. Herri osoa gorrotoa da.

Bi pertsonaia agertzen dira.

Bi pertsonaia aurrez aurre jarri behar nituen. Eta Altsasun momotxorroa dugu. Momotxorroak gaztetasuna eta indarra islatzen du. Beraz, Greziako gerlaria ezkerretan dago eta momotxorroa eskuinean. Biek elkarrizketa sutua dute. Gerlariak agintzen du elkarrizketan, eta momotxorroa defendatzen da. Gainera, Jainkoen labirintoan, kartzelan, bizitza tokatu zaion egoera tragikoa onartu behar du ere.

Osoa: www.guaixe.eus



Salazar tailerrean lanean. UTZITAKOA

Dora Salazarren eskulturak Iruñeko Nafarroako Museoan

Eskultore altsasuarraren hamabost lanek gela berri bat mustu dute. Erakusketa martxoaren 24ra arte izanen da

ALTSASU

Kapera izanen da hemendik aurrera Nafarroako Museoaren erakusketa gela berria, eta Dora Salazarren hamabost lanek osatzen duten erakusketa mustu du. Erakusitako eskulturak gorputzaren eta feminismoaren inguruan oinarritzen dira. *Inspirazioa. Arnasbehera. Amaiera* deitutako erakusketa martxoaren 4ra arte egonen da Iruñeko Nafarroako Museoan.

"Berria eta zaharra" uztartzen dira Dora Salazarren erakusketan. Eskultore altsasuarraren hamabost lan erakusitako dira Nafarroako Museoan. Artistaren ibilbide osoan zehar egindako gorputzaren eta feminismoaren inguruko eskulturak dira. Museoaren eraikineko kaperan jarri ditu lanak, hortaz, gaur egungo eskulturak XVI. eta XVII. mendetako erretaularekin batera agertzen dira. "Leku

solemnea da, eta lekua hain hunkigarria denean, uste dut aukerarik hoberena berarekin bat egitea dela", adierazi du Salazarrek. Hortaz, artelanak "betidanik" hor egon direla irudikatzea da artistaren xedea.

Dora Salazar gorputzaren bidez genero ikuspegi baten nor-tasuna bilatzen du. Nafarroako Museoaren kaperan mustu berri duen erakusketan, esaterako, aldarea zaintzen dauden gorputz biluzien eskulturak, airean zintzilikatuta dauden panpinak edota bihotzak daude. Gainera, gorputz biluzietako eskulturetan leloak margotu ditu: "eskulturaren azalak mihi-se bihurtu ditut hainbat aldarrikapen egiteko, besteak beste, emakumeen gorputzarekin egiten den erabilpena". Hortaz, gorputz eskulturetan "Nire gorputza nire da" leloa irakurri daiteke, besteak beste.

Antzerkiaren magia disfrutatzeke antzezlana Etxarrin

Martinaren parke fantastikoa antzezlana izanen da bihar, azaroaren 3an, 17:30ean, Etxarri Aranazko kultur etxean. Martina egunero parke berdiner joaten da. Baina parke bat baino gehiago ere bada: bertan gauza fantastikoak gertatzen dira. Hamaika abentura bizi ditu Martinak etxearen eta eskolaren artean dagoen parkean.

Martinaren parke fantastikoa antzezlanean Martinak bere sekretuaren lagun egin nahi ditu ikus-entzuleak eta parke fantastikoan bizi dituen esperientziak, abenturak eta lagunak erakusten ditu. Etxarri Aranazko kultur etxean izanen da emanaldia, 17:30ean.

Publiko gazteenari zuzendutako antzezlana garaikidea da. Hala ere, haurrek zein helduek disfrutatuko duten ikuskizun bat da. Sarrerek 3 euroko prezioa dute.

11 GALDERA

"Borrokalariek errespetu handia diote elkarri"

Xuban Muñoz Gartzandia altsasuarrak yoseikan budoa egiten du eta baita K-1 borroka kirola ere. Aurreko astean ringera igo zen lehen aldiz, Altsasuko ferietan antolatutako boxeo eta K-1 gauldian. Gogor entrenatzen jarraitu nahi duela argi du

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

1 Xuban, arte martzialekin hasi zinen, ezta?

Bai, duela hiru urte, 14 urterekin yoseikan budon eman nuen izena, Altsasun. Raul Barrenak entrenatzen ninduen eta Iparraldeko Joxe ere gu entrena- ztera zetorren. Berez Amets yoseikan budo taldekoa naiz eta Aritz Agirrebengoa da, egun, entrenatzailea.

Yoseikan budon eta combat jiu- jitsun, yoseikan budoaren bariazio bat, bizpahiru lehiakete- tan aritu naiz, beti ere tatami gainean, ez ringean. Malagara joan nintzen duela 2 urte eta gero iaz Bartzelonan aritu nintzen, Espainiako Txapelketan, 58 kiloko pisuan. Bigarrena geratu nintzen; dena den, arte martzial hauetan ez da jende asko mugitzen. Orain, 18 urte ditudala, 62 kiloko pisuan nabil.

2 Yoseikan budoan aritzeaz gain, K-1 borroka kirolera egin duzu salto. Nola?

Aritz Agirrebengoak Iruñeko Kanku gimnasioko entrenatzaileak Eguzkizarekin hitz egin zuen, Altsasun gauldi bat egiteko. Niri esan zidan ea borro-

katu nahi nuen eta baietz erantzun nion. Horrela, Kanku gimnasia joan ginen entrenatzera, nik K-1 ez bainuen inoiz egin. Han jarraitzen dut entrenatzen. Ikusiko dut aurrerago boxeoan aritzera animatzen naizen. Bestalde, Altsasun yoseikan budoan ere jarraitzen dut.

3 Zer nolako kirola da K-1?

Borroka kirola da, kontaktu- borroka. Kick boxinga eta arte martzialeko beste hainbat teknika uztartzen dituena. Boxeo bezalakoa da, baina hankak erabiltzen dira. Hankak buruan, gorputzean eta hanketan erabili daitezke. Amateur mailan belaunak erabiltzen dira ere, baina bakarrik gorputzean jotzeko; profesional mailan, aldiz, belaunak ere burura eman daitezke.

4 Altsasuko ferietan K-1 eta boxeo gauldia antolatu zen, Kataluniako eta Nafarroako borrokalarien artean. Zu ere bertan aritu zinen.

Bai. Ring batera igo nahi nuela argi nuen, lehendabiziko aldian izan zen, debuta, eta gainera Altsasun! Oso pozik nengoen: familia, lagunak... guztiak etorri ziren. Ni K-1ean aritu nintzen,

Azkoiengo borrokalaria baten kontra. Ederki egurtu ninduen, baina kontentu geratu nintzen, 3 erasoak iraun nituelako eta ez nuelako hori espero. 200 ikusle inguru bildu ziren Burundan. Amak dio K-1 gustatzen zaiola, baina boxeo ez. Baina noizbait boxeoan hasten banaiz, onartu beharko dute.

5 Borroka mota honetan beste sakandarren bat aritzen da?

Altsasuko jaialdian Iturmendiko Dani Mateos aritzekoa zen, baina ezin izan zuen sudurra apurtu zuelako. Ona da; nik berarekin entrenatzen dut, eta Beasaingo beste batekin. Eta lagunak ere sparringak edo entrenamendu laguntzaileak ditut, Oskar esaterako.

6 Sakanan zaletasuna dago?

Bai. Geroz eta ikusle gehiago eta borrokalaria gehiago daude. Arte martzialeko eskolek garrantzia dute.

7 Ordu asko eman behar dira entrenatzen?

Bai. Nik sartzen ditut ia arratsalde guztiak. Kirol honetan erresistentzia asko izan behar duzu eta mugimenduetan azkar-



Xuban Muñoz Armendarizek ringean debutatu zuen, ferietako Altsasuko gauldian.

tasuna. Ordu asko sartu behar dira. Punta-puntan egoteko horretara egon behar duzu, lanbide batean bezala.

8 Elikadura zaintzen duzue?

Nik oraindik ez asko, baina zer edo zer bai. Azkenean pisu batean zaude eta pisu hori zaindu behar duzu. Ni orain 62 kilotan lehiatzen naiz.

9 Zer ematen dizu zuri kirol honek?

Borroka kirolek itxura biolentoa dute, baina errespetu handia diogu elkarri. Norbaitekin borrokatzen duzu eta gero laguna zara. Futboleko partida bat jokatu eta sarritan arerioek ez diote eskua ematen elkarri. Hemen borrokatu egiten da eta gero guztiak lagunak. Balore

onak ditu. Kirol bezala, gogorra da, asko entrenatu behar duzu, baina txikitatik entrenatzen baduzu eta kolpeetara ohitua bazaude...

10 Jendeak beldur puntu bat dio, kolpe txarren bat hartu eta gaizki geratzen...

Baina hori kontrolatuta dago. Ni amateurren aritzen naiz, baina profesionaletan, mediku bat duzu borrokatu baino lehen eta gero beste bat, borrokatu ondoren.

11 Profesionala izatea gustatuko litzaizuke?

Bai. Zaila da, baina gogor entrenatzen baduzu momentu batean ailegatuko da, ailegatzen bada...

HURRENGO URTEKO EGUTEGIA EGITEKO EGUNA IRITSI DA!

2019

gk@gkomunikazioa.eus

948 564 275